

A close-up photograph of a green grasshopper with long, light-colored legs, perched on a vibrant red flower. The grasshopper is facing forward, and its body is a mix of bright green and yellowish-green. The flower has large, pointed red petals and a central cluster of small red buds. The background is a soft, out-of-focus green.

uk

162. zenbakia / 2009ko irailaren 21a

Unibertsitateko Aisia Kulturala

Getxo

2009-2010 Ikasturtea // 1. seihiilekoa

IKASTAROA:

SUPERPOTENTZIAK, GATAZKAK ETA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA XXI. MENDEAN

Irakaslea: Josu Otxoa

Lekua: Algortako Kultur Etxea (Villamonte)

Ordutegia: 19:00-20:30 (ostegunetan)

Egutegia:

Urria	8, 15, 22, 29
Azaroa	5, 12, 19, 26
Abendua	3, 10

Eta gainera...

- **Pautas y claves para entender el arte actual // Irakaslea: Iñigo Sarriugarte**
urriaren 6tik abenduaren 15era (astearteetan, 17:00etatik 18:30era)
- **2009-2010. Grandes conmemoraciones musicales: Haendel, Haydn, Mendelssohn, Chopin, Schumann, Mahler... conocer al artista, entender su música // Irakaslea: Mercedes Albaina**
urriaren 6tik abenduaren 15era (astearteetan, 19:00etatik 20:30era)
- **La edad dorada del teatro y la poesía en la literatura inglesa // Irakaslea: Isabel Parrondo**
urriaren 8tik abenduaren 10era (ostegunetan, 17:00etatik 18:30era)

INFORMAZIO GEHIAGO: Algortako Kultur Etxea (Villamonte, A-8) // Tel.: 94 491 40 80

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIDEA: Ametzti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Maitane Nerekan,
Zuberoa Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Mentkaka

TESTUEN ORRAZKETAK: Ziorza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola,
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

MARRAZKILARIA: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Onueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

UK Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarte
Topaguneko partidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA:
900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. E plana Algortan.
7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako Kasinoa.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Hui Min Zheng.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Folk Getxo BBK 2009.
28. ARGAZKIA. Munduko dragarik handiena, Erandio.
30. BERBETAN. Jabi Baraizarra.
34. FOTOGRAFIA. Aitor Galbarriartu.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Euskal film laburren ziber-bokoa. Film Labur Lehiaketa.
43. MUSIKA. Txalaparta jaia Algortan. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Capoteren hilotzak 25 urte. Erreseinak.
45. KIROLAK. Getxo kirolak ikastaroak.
46. ELKARRIZKETA. Lander Otaola.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Iparralde, Barrika.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako trainerilla Bermeon, 1976.
54. AITORMENAK. Anjel Alkain.

Azala: Aitor Galbarriartu



30 Jabi Baraizarra

Berbetan

Orbayu bidea zabaltzen Pou
anaia eskalatzaileak batera
ibili da, ohi legez, areetarra.



11 Hui Min Zheng



54 Anjel Alkain



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

Bisita egizu gure web berria
eta hartu txanda on-line
www.renaultleioa.com

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Plastikoa

1609ko abuztuan egin zuen Galileok lehen teleskopioa, duela 400 urte. Egun horretantxe, zaborretara plastikozko poltsa bat bota izan balu, orain, teleskopioaren urteurrenagaz batera, poltsaren heriotza ospatuko genuke. Izan ere, 400 urte behar dute plastikozko poltsa arruntek degrada-tzeko. Iraila hasteagaz batera, plasti-kozko poltsen erabilera gutxitzeko neurriak hartzen ari dira. Guztietan so-natuena, Carrefour izan da, eta legeari aurre hartuz, poltsak banatzeari uko egin dio. Neurria, berez, onuragarria izango da ingurugiroarentzat, baina batez ere, supermerkatu sare honen irudi eta poltsikoarentzat. Erosketak poltsa berrerabilgarriakaz egitera bultzatu gura gaituzte. Ederto. Txintxo-txintxo, telazko poltsakaz, etxera heldu naiz supermerkatutik. Janaria antolatzen hasi eta konturatu orduko zabor poltsa oso bat bete dut plastiko eta edukiontziakaz. Kontsu-mitzaileak, kontzientzia ekologikoa badu, ontziki gutxien dituen produk-tuak aukera ditzake dendan. Baina ni-re lagun andaluz batek esaten duen moduan, ardura ez dugu soilik kon-tsumitzaileengan utzi behar. Legeak urrunago jo beharko luke, eta poltsen erabilera debekatzeaz gain, ontzi eta enbalaien erabilera gogorrago arautu.

gu geu

Ondo etorri beharrera!

Urtero legez, gure txoko hau garai honetako esaldi berberagaz hastea erabaki dugu: “*Opor osteko lehenengo UK duzu hau irakurle, uda handik eta hemedik igaro ostean lanera itzultzeko...*”; Aizu! Baina hori baino maiteago dugu hamaika aldiz errepikatu dugun beste hau: “*Opor aurreko azkeneko UK honetan...*”. Sarritan “*déjà vu*” iraunkor batean bizi garela emoten du; kontatu beharrak, gaiak, gertatutakoak behin eta barriro errepikatzen ditugula, ala direla? Dena dela, ahalegintzen gara (hau ere mila bider errepikatua) barriak ere bilatzen.

Hala, Atzori eta Biharri hainbat kontu ostu dizkiogu 162. UK hau osatzeko, eta lerroz lerro bete ditugu orriak, argazkiz argazki hutsune guztiak; iraileko oporren biharamuna zelan edo hala ahazturara bidaliz. Irakurleei astun ez gertatzea espero dugu, eta begiraleak aho zabalik uztea, segundo gitxiz bada ere.

Barritasun apurtxu bategaz, eta errepikatutakoakaz ere, txoko hau bete dugu. Hurrengoan gehiago eta, agian, barriago. Ongi etorri beharrera!

UK-ko lantaldea

Iritzia

Irailaren 11 ezagun egin zen nazioartean 2001. urtean. Jon Etxebarria algortarrak data horren beste “bertsioak” eman dizkigu.

Irailaren hamaikak

Urteurrenak eta data konkretuak gogora ekartzea ez da garrantzitsuena, data asko isilduta daude eta gehienetan agertzen zaizkigunak fetitxismo historiko bezala agertzen zaizkigu, eta ez prozesu historikoen zati bezala. Hil honetan

«Irailaren 11n Diada eguna ospatzen dute Katalunian, euren aberri eguna»

urren garrantzitsuak, prozesu jakinen inflexio puntu izan direnak, herri eta herritar askoren bizitza baldintzatzen jarraitzen dutenak.

Alde batetik, irailaren 11n Diada eguna ospatzen dute Katalunian, euren aberri eguna. Kataluniarrek erresisten-tzia historikoa gogora ekartzen dute, batez ere, 1714ko irailaren 11ko armada franko-gaztelarraren inbasioaren aurkako

horren adibide garbia ikusi dugu ostabere; “iraila-ren 11” bakarra baino ez dute azpimarratu heda-bide gehienek, baina badaude bestelako urte-

erresistentziaren azken orduak. Baina lehen aipatu bezala, ez da data soila, herri zapaldu baten erresistentzia borrokaren zati baizik.

Bestaldetik, irailaren 11 data tragikoa da txiletarrentzat eta, oro har, ezkertiar guztiontzat. 1973ko egun horretan klase dominatzaileek arau demokratikoak hautsi, eta Pinocheten bidez eta CIAren laguntzarekin demokratikoki hautatutako Allende sozialistaren gobernuaren aurka-ko estatu kolpea eman zuten. Data horren garrantzia egun horretako jazoere-tatik haratago doa: garrantzitsua da eka-rri zituen ondorio latzengatik, bai txiletar herriari begira (maputxe herriari begira ere bai), bai munduko herriei begira; izan ere, ekintza horrek gerora mundu osora hedatzen joan zen neoliberalismoa-ren hasiera ekarri zuen.


Hala eta guztiz ere, hedabide gehie-netan irailaren 11 World Trade Center eta Pentagonoaren aurkako ekintzen urteurrena baino ez dute gogora ekarri, betiere diskurtso ofizialari jarraiki. Hedabideek eta klase dominatzaileek isi-larazi dituzte, betiko moduan, bertsio ofizialaren koherentzia ezaren aurrean gertatutakoaren beste inbestigazio bat eskatzen duten mugimenduak. Berbarako, orain gutxi Obamaren gober-nuko kide baten dimisioa lortu dute, 2001eko irailaren 11n gertatuarekin Bushen gobernuak inplikaziorik zeukan aztertzeko eskaerarekin bat egin zuelako. Izan ere, gero eta gehiago dira diskurtso ofiziala zalantzan jartzen duten testigan-tzak eta adituen frogak. Horrela, egiten dabiltzan lan hori oso garrantzitsua da; batetik benetan gertatu zena jakiteko, eta bestetik, elite politiko-ekonomikoak data edo ekintza horiek garai militarizatu inperialista berria justifikatu eta inposa-tzeko aitzakia bezala erabili ditutelako.

Jon Etxebarria Txontxe (Militante internacionalista)



URGULL KALEA (ALGORTA), 2009KO IRAILA

Txertorik bai? / E Plana, A gripea... letren bidezko izendapenak modan daude, itxuraz! Udabarrian hasitako (eta ezin igarri noiz arte) “kanpaina” bi horiek lagunarteko elkarriketa denak kutsatu dituzte, horiek dira bazkalondo askotan “ardurazten gaituzten” kontuak. Bata, edozein herritako, edozein solotan eta kaletan, edozeinen begibistan dauden kartel piloek horren barri gura ez dela ere emoten digutelako; eta bestea, ez ohiko gripea denez “xerto barriak erosi behar di-tugula” sinestarazi digutelako. Krisi garaian, biek dute zerbait komunean, txin-txin hotsa! Horietarako txertoaren bila LANEAN GABILTZA! o / Argazkia: Asier Mentxaka



Zer modue udan? Nik primeran pasatu dut, baina orain berriro ere nire ikasteko gertik ikusteko laguntziko gogoan dut, ikastetxera itzulizko gogoa. Bero... ikastetxeko jabetukina :)

Badakizu zer? Leirek esan ditzurten bere amak ere ikasi egingo duela, klaseara joango dela. **EUSKAL TEGIBATEAN EUSKARA KASKO DUELA** esan ditz, Udalek gurasoei laguntzen diela, edota ez dakit zer kontu. Beraz, gaur arratsaldean bertan amari eta aitari izena emateko esango dilet. Hurrela, euskara ikasko dute eta bitara joan baino lehen ipuin bat kontatuko dionte, elkarrekin abestuko dugu, etxeko lanekin lagunduko dionte.

Aizu, **ZERGATIK EZ DIOZU ESATEN ZURE AMARI?** Lagunak ditrenez, elkarrekin joan daitezke eta hurrela, euskaraz hitz egin diezakegu haiekin. Arian lagundu ere egin diezakegu. Tira, esaiozu! Auzo! Gaur arratsaldean esango diegu. **IZENA EMAN DEZATELA EUSKARA KASTEKO.** Eta tranparik ez, e!

Badakizu zer esango duten? Bada, nagusiei ez diegula ulertzen, oso lanpetuta gaude la, arautegirik ez dagoela... Beraz, gaur arratsaldean esango diegu euskaltegi batera joateko gaietzera eta izena ematera. Bestela, geuk ere esango diegu ez garaia musikara joango edo ingelesera, edo eskuletara edo judora, edo Konforme? Ikusiko duzu, joan egingo dira eta **PRIMERAN** pasatuko dute.

Hona hemen Leirek eman dizkidan telefonoak eta helbideak,



EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEAK:

(PROBINTZIAT DIRUA DIRU-LAGUNTZEAK)

- = 12 urte edo gutxiagoko seme-alabek dituzten gurasoentzat.
- = Haur zantxoak edo haurren zaintza dituzten familiaretan ezarritako familiarantzak (alfo enamentat...).

BALDINTZEAK

- = Ikasleak irakaslearekin batera egon behar duela ikasteko.
- = Ikasleak, HAZTEK homologatutako euskaltegitan egin behar du.

ARGIBIDEAK:
Euskararen Ikasteko Diru-Laguntzak 2023-2024 urterako aplikazioa
Leirek Auzo Euskararen Ikasteko Diru-Laguntzak 2023-2024 urterako aplikazioa
Leirek Auzo Euskararen Ikasteko Diru-Laguntzak 2023-2024 urterako aplikazioa



Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIAKO KASINOA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > obrak



2009ko iraila, Villamonte (Getxo)

Testua: **Beñat Vidal** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

** Doinua: Aita semeak tabernan daude*

Uribe Kostan, obra kontuan
daramagun estiloa,
plaza itxita hesiz josita
eta zelako lioa.
Jakin nahirik Villamonteko
plazak duen balioa,
agian hasi dira bilatzen
Algortan petrolioa.

Agintariak proiektuz lepo
omen dute koaderno,
beraz arazo hau izango da
eskualdean eternoa.
Azken hau zer den enteratzeko
galdetzeraz laster noa,
Villamontetik Telletxeraino
igogailu modernoak.

Koadernoazale guzti horiek
adi, entzun gaitzazue!
Obra hauekin zuen sakela
ondo betetzen duzue
“Sortzen ditugun eragozpenak
barka iezazkiguzue”
Kartel polit bat ipini eta
denak konforme, aizue!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

LASTER ATAL BARRIA: IRAGARKI MERKEAK

Etxebizitza, motorra, garajeak, lana, bestelakoak.

* etxebizitza, motorra, garajeak, langile bila: 5 ale 10 euro.

* Lan bila, galdu, aurkitu, harremanak, trukeak: 5 ale doan.

* Gehienez 13 hitz.

* Bidali testua publiuk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo deitu 94 491 13 37 telefonora.

8UK

[talaia]

agur Gurugu! > zarata gutxi eginez hartu du erretiroa Bernarrek

Algortako Etorbideko 72an dago Gurugu

Algortako txokorik kuttunetakoa izan da askorentzat Gurugu taberna. “Algortako parte bat desagertu da tabernagaz batera”, aitortu izan du Bernar Azkorak. Zenbat edari zerbitzatu ote du Guruguko azken tabernariak... Betiko bezeroek gazteakaz topo egin dute barraren bestaldean 73 urteotan; txikitoak eta kinitoak eskutik helduta, zenbat zapatu arrasti partekatu ote dute batzuek eta besteek? Nork ez du ezagutu Gurugu? Oraindino orain mantentzen zituen baldosa zein altzari zaharrak, mahai luzeak. Bertan eseri dira algortar gehienak, botila eta zuri-beltzeko argazkien artean. Horregatik saminez hartu dute denek taberna ixtea. Zenbat gaitzespen eta erregu jaso ote ditu Bernarrek azken asteotan? Baina isilean zarratu du atea, egia esan, urteen nekea lepoan. Umezurtz utzi ditu auzotarrak. Beste txokorik piztu artean, jokatu dira azken karta partidak eta azken kinitoak. Goian bego, Gurugu! ○

burdinazko itsasadarra > ibilbideak arkitektura eredua ezagutzeko

Nerbioi itsasadarra

Nerbioi itsasadarrean zehar itsasontziz ibilbide gidatuak egiten dihardu Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritza. Bilboko metropoliak bizitako eraldaketa kontatzen du Iñaki Uriarte arkitektoak, oraindino badago entzuteko aukera asteburuan, 25ean eta 26an. Ibilbide bi egiteko aukera dago. Bata, 12 euroren truke, goizez eta arratsalde, bariku zein zapatuan izango da. Bestea, 20 eurokoa, gauez izango da eta barikuan; zuzenean eskainiko dute musika azken horretan. Uribitarteko kaiko pantalanetik (Pio Baroja plaza) abiatzen dira. Lehena Santurtzin amaitzen da, bigarrena barriz, Abrarainoko joan-etorria egiten du, baina Portugaleten lehorreratzeko aukera dago. Sarrerak Arkitektoen Elkargoan (94 424 44 74). ○

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...haria

...lehen garaiak...

...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com /Tf. (+34) 943 140 143

UK9

UK aldizkaria > Gaztetxoentzako denborapasak eta lehiaketa barria



Umeek eta gaztetxoek sari bereziak lortzeko aukera izango duzue lehiaketa barriagaz

Badakar barritasunik ikasturte hasierak gurera. Umeek eta gaztetxoek gozatuko dituzte oraingoan, beraientzako espreski prestatutako lehiaketa egingo baitu UK aldizkariak hemendik aurrera. Gainera, beraientzako denborapasak ere argitaratuko ditu, datorren aletik hasita. Atal ezaguna dugu denborapasarena eta gustura hartu ohi duzu, irakurle. Baina zuon artean ume eta gaztetxo asko dago, UK-rentzat helduak bezain garrantzitsuak, irakurlerik barrienak. Horregatik eskaini gura dizugu tartetxoa. Alero izango duzu aukera lehiaketan parte hartzeko, baita opari ederrak lortzeko ere. Nagusiagoak ere betiko lehiaketa izango duzu, noski. Denborapasa tartekatua izango da, ordea, ale birik behin gaztetxoentzako. Hori bai, gogoan hartu lehiaketaren erantzuna ahalik eta lasterren bidali behar dela uk@aldizkaria.biz helbidera, betiko legez. Anima zaitez, oparia zain daukazu eta! ○

bisita > Ander Deuna Ikastolako lagunak UKn



DBHko lehenengo mailako ikasleak hurreratu zitzaizkigun irailaren 10ean

UK ezagutzera etorri ziren Sopolako Ander Deuna Ikastolako ikasle batzuk, DBHko lehen mailakoak, irailaren hasieran, eskolak hasi eta berehala. Izan ere, Murgiltze Astearen buru-belarri sartuta zebiltzan, urtero legez garai honetan. Euskara sustatu, landu eta erabilerari bultzatu gura dute. Hori dela eta, hainbat ekimen burutu zuten, euskararen erabilerari buruzko inkesta Sopolan, jolasak edota eskualdeko hedabideetara bisita, besteak beste. Azken horren barnean kokatzen da gurera egindako itzulia. Aldizkariaren helburuak, zeregina eta edukiak ezagutzeko aukera ukan zuten gaztetxoek, baita aldizkariko lan egunaren nondik norakoak bertatik bertara ikusteko ere. Askok bere burua ere aurkitu zuen gure orrialdeen artean. Aupa gazteak, ondo ibili eta hurren arte! ○



“R-a ondo ahoskatzeko hiru hilabete eman nituen ispilu aurrean”

Hui Min Zheng > Euskaltegiko ikaslea

Aurpegitik borratu ezineko irribarrea dauka Hui Min Zhengek, eskertzekoa. Txinako Fujian herrian jaio zen orain 18 urte, azken 6ak Areetan eman ditu. Gustura sentitzen da gure artean eta erraz ohitu da hemengo bizimodura, nahiz eta bi kultura erabat ezberdin direla onartu: “Txinako gizartea oso kritikoa da, eredu estetikoagaz batez ere. Lodi egotea oso gaizki ikusia dago, adibidez; hemen irekiagoak zarete zentzu horretan”. Gure kulturako zerbait aukeratzeko eskatu diogunean, ez du birritan pentsatu: “Euskara”. Lamiako eskolan sartu zen euskararen munduan: “Nire bizitzako eskolarik onena izan da, askok fama txarra jarri dioten arren”. Getxora heldutakoan gurasoek eskolara eroan zuten euskaraz ikasiko zuela jakin barik: “Ikasi nituen lehen hitzak ‘oso ondo’ izan ziren. Etxera heldu eta amari zer esan gura zuten galdetu nionean, ‘oso’ animalia bat zela esan zidan”. Joan den urtean, euskaltegian izena ematea erabaki zuen: “Nire ardura Txinako kultura zuen artean zabaltzea izateaz gain, hemengoa barneratzea ere bada. Askok ez du ulertzen nire jarrera”. Naturaltasunez ikasi zuen euskaraz Hui Minek: patioan, marrazki bizidunak ikusten... Hala ere, badago ahalegin berezia eskatu zion zerbait: “R-a ahoskatzea. Hiru hilabete eman nituen ispilu aurrean”. EGA atera gura du, eta ziur gaude lortuko duela. Animo, neska! ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografía

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •

Izan zaitez zeure buruaren jabe

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak 17 tailer eskainiko ditu 2009-2010 ikasturtean, **10 barriak** izango dira; **osasuna** berbagai izango dute aurten **lehenengoz**

Irailaren 10ean aurkeztu zuen Getxoko Udaleko Berdintasun Sailak 2009-2010 ikasturterako Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren eskaintza. Barrikuntzen artean, osasun gaiak landuko dituen heziketa ildo abiaturiko dute.

Proposamen barriak dakartzkigu aurten Getxoko Udaleko Berdintasun Sailak antolatzen duen Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak. Orain arteko helburuei eutsiko die, hau da, politika publikoek sortzen duten bazterketa sozialagaz apurtu eta emakumeen partaidetza soziala eta politikoa sustatzen jarraituko du; baina, gai barriak jorratuko ditu bide horretan aurrera egiteko. Joan den ikasturteko lau heziketa ildoei osasunari buruzkoa gehitu zaio. Keltse Eiguren Berdintasun Zerbitzuko zinegotziak aukera barri honegaz bete gura duten hutsunea azaldu zuen aurkezpenean: “Gai honegaz emakumeen bizitza-kalitatea hobetzea lortu gura dugu gure gorputzari buruzko informazioa, ezagutza eta hausnarketa egitea ahalbidetuz, ondoren gure osasunari dagozkion gaiak guk geuk erabaki ahal izateko”. Lerro barriaren barruan, Sexualitatea lehen pertsonan, Emakume nagusien sexualitatea eta Zoru pelbikoa laguntzea ikastaroak eskainiko dira. Komunikazio lerroan, hedabideen jokabidea aztertzei aukera egongo da; honez gain, Jende aurrean berba egiteko teknikak (euskaraz) ezagutzeko aukera emango dute barriz ere.



Joan den ikasturte amaieran egindako Jabekuntza Eskolen topaketa

Edozein bazterketa motaren kontra borrokatzeko, ezinbestekoa izaten da elkartasuna; Jabekuntza Eskoletan, munduko emakumeen artekoari eman gura diote garrantzia, horretarako, emakume etorkin eta bertokoen arteko

«Emakume etorkin eta bertokoen arteko topaketak egingo dituzte otsailetik aurrera»

topaketak egingo dituzte otsaila eta maiatzaren arteko hileko azken eguenean. Munduko emakumeen literatura eta komikiari buruzko tailerrak mantenduko dira eta mutilazio genital femeninoari buruzko saioa egingo dute, Ganiako emakumeak egindako azterketa batetik abiatuta.

Bestalde, hiru ikastaro barri eskainiko dituzte Emakumeen Nortasuna eta subjektibotasuna lerroaren barruan: *Nire gorputzaren bila*, *Genero identitate garaikideen eraikuntza* eta *Beti atzetik ditudan mamu femeninoak*. Aurreko urtean egindako Autodefentsa tailerrari, *Irakurketa feminista literaturan* (euskaraz) eta arte eta kritika feministari buruzkoa gehituko zaizkio.

Ikastaroen prezioa 5 eta 15 euro artekoa izango da. Onartutakoen zerrenda irailaren 25ean kaleratuko da, eta matrikula egiteko epea urriaren 6a arte egongo da zabalik. Parte hartzaileek EHUKo aukera askeko kredituak lortu ahal izango dituzte. Behar dutenentzat, haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Informazio gehiago: 94 466 01 36
berdintasuna@getxo.net

Euskara ikasteko

laguntzak gazte, guraso, dendari eta etorkinentzak



Euskaltegietan matrikulatzeko laguntzak emango ditu Getxoko Udalak

Ikasturtea hasteagaz batera euskaltegietako matrikulazio kanpaina hasi ohi da. Getxoko Udalak ahalik eta herritar gehien animatu gura ditu euskaraz ikastera, eta horregatik, diru laguntzak emango ditu. Aurreko urteetan egindako merkatarientzako eta etorkinentzako ikastaro bereziak errepikatzeaz gain, ekimen barri bi jarri ditu martxan 2009-2010 ikasturterako.

Alde batetik, 18-23 urte bitarteko 5200 gazteri eskutitz bana bidali die, euskara ikastera animatzeko eta doan aterako zaiela gogoratzeko. Horregaz, lan merkatura salto egin aurretik gazteek euskara menperatzea lortu gura dute. Gurasoei ere matrikularen %100 ordainduko zaie. Horregaz, seme-alabei euskara transmititzea eta etxerako lana-

kaz lagundu ahal izatea bilatzen dute. Joan den urtean 2500 getxoztar inguru ibili ziren euskara ikasten, horregatik, Udaletik, helduen euskalduntzea “*osatsuntsu*” dagoela azpimarratu gura izan dute: “*Ez dago gazte eta helduen hezikuntza edo formazio arloan Getxon hainbeste pertsona mugitzen duen ekimenik*”.

Hasieran esan bezala, AISA, etorkinak euskarara eta euskal kulturara hurreartzeko ikastaroa eta Dendaketan, jendea euskaraz atenditu ahal izateko merkatarientzako ikastaroa, errepikatuko dituzte; biak 60 ordukoak izango dira eta amaitutakoan diploma emango zaie. Horietan izena emateko epea urriaren 2a arte egongo da zabalik, nahiz eta eskolak urriaren 13an hasiko diren. o

HAURRESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK HILAREN 30A ARTE

Algortako Egunsentia haurreskola berrian izena emateko epea zabalik egongo da irailaren 30a arte. 2010eko urtarrilean zabalduko ditu ateak haurreskolak eta 0 eta 2 urte arteko umeentzat izango da. Matrikula Udaletxean eta Andra Mari eta Romoko Herritarrentzako Arreta Bulegoetan egin daiteke.

Harremanetarako: 94 466 00 00

GAZTEENTZAKO IKASTAROAK

Gazteentzako Informazio Bulegoak 5 ikastaro antolatu ditu irailetik abendura bitartean. Bakoitzaren prezioa 5 eurokoa izango da eta matrikula www.getxo.net web gunean, gaztebulegoa@getxo.net helbidera idatziz eta 667 600 740 telefonora SMS bat bidaliz egin daiteke. *Birziklapena Artean*, *Ilustrazio digitalaren hastapenak*, *Artisau-xaboiak*, *Jarri erritmoa zure sexualitateari eta Derivefanzina* dira ikastaroen izenak, 12-30 urte bitarteko gazteei zuzenduak daude.

GETXO ANTZOKIKO LANAK DIRELA ETA ALDAKETAK KALEETAN

Azken hilean Algortan kotxez ibili denak ikusiko zuen kaleen antolaketa aldatu egin dela Getxo Antzoki barria eraikitzei lanak direla eta. Udaletik gogoratu gura dute antolaketa barriak ekarriko dituen aldaketak. Alde batetik, eskola zein autobus publikoetarako geltokia Andres Cortina eta Algortako Etorbidearen arteko bidegurutzean jarri dute. Gainera, Andres Cortina kalea, Andikoetxe eta Arentxondo artean moztu da trafikoarentzat. Bestalde, Andres Cortina, San Martin, Trinidad eta Maria Goiri kaleetako zirkulazioan aldaketak izan dira, Telletzeko tartean, Trinidad eta Algortako Etorbidearen artean, bi noranzkoetako zirkulazioa ezarri baita. Oinezkoentzako bideetan ere aldaketak izan dira.

san inazio

autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1• ALGORTA

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
irati@getxo.net

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Itxaso Paya > *Goazen!* telesaileko protagonista

“Telesailak arrakasta izatea espero dut, ea aukera barriak sortzen diren”



Itxaso Paya

Bertsotan ikusten ohituta gauden arren, aktore lanetan ere badabil Itxaso Paya algortarra. Maiatza hasieran Goazen! gaztetxoentzako telesailerako kastinga egin zuen. Ekainean aukeratua izan zela esan, eta berehala grabaketagaz hasi ziren. Uda osoa eman du, urritik aurrera EITBko lehenengo katean ikusi ahal izango dugun telesailean beharrean. Gogorra izan den arren, errepikatzeko prest dago.

—Nondik heldu zitzaizun telesailean parte hartzeko proposamena?
—Iaz antzerki musikaleko ikastaro bat egin nuen. Irakasleak telesailerako proposatu ninduen eta horregatik deitu zidaten kastingean parte hartzeko. Kasting bi egin behar izan nituen eta ekaina erdialdean, azterketetan nengoe-la, aukeratu nindutela esan zidaten.
—Zein da zure pertsonaia?
—Lehen zazpi protagonista ziren eta orain bi gehitu dituzte; ni horietako bat naiz. Nire pertsonaia, udalekura heldu barri den neska lotsatia da. Hasieran

lagunak egitea kostatzen zaio, baina denboragaz lagun onak egiten ditu eta taldean integratzen da. Eboluzio nabarmena dago pertsonaian; hasierako kapituluetan ez du garrantzi handirik, baina gero, indar handia hartzen du.
—Zure izateko moduagaz bat datorren pertsonaia da?
—Ni ez naiz oso lotsatia eta hasieran zaila egin zitzaidan nire pertsonaiaren erreakzioak ulertzea. Hala ere, kasu batzuetan identifikatuta sentitu naiz. Denok sentitu dugu lotsa gure bizitzako momenturen batean.

—Zelakoa izan da grabaketa?
—Ekainaren 30ean hasi eta irailaren 4an bukatu zen grabaketa. Egutero ibili gara grabatzen Miramonen eta Azpeitian. Gogorra izan da, kristoren disziplina eskatu digute; lan eta lan ibili gara, nahiz eta gaixorik jarri, gure onena ematen saiatu behar izan dugu. Hala ere, esperientzia oso polita izan da. Asko ikasi dut, eta lankideakaz primeran konpondu naiz. Makillatzaileek, teknikariek, zuzendariak... egiten duten lana ikaragarria da. Lan egiteko gogoia eta ilusioa ikusi dut denen partetik.

«Lan egiteko gogoia eta ilusioa ikusi dut denen partetik»

—Goazen! Ez da ideia “yankee” baten bertsio euskalduna?
—Egia esan ez da oso originala. Hala ere, nahiz eta ideia originala ez izan, oso ondo iruditzen zait horrelakoak sortzea. Euskal Herriko umeek ez daukate horrelako produkturik euskaraz. “*High school musical*” atera zuten eta ume guztiek buruz dakite. Ondo dago hori bera euskaraz ekoiztea, umeek aukera izan dezaten hori euskaraz bizi ahal izateko. Honek aurrera egiten badu, aukera egongo da gauza barriak sortzeko. Baina umeak lotzeko modu bezala ez dut txar-to ikusten. Espero dut telesailak arrakasta izatea, gauza barriak sortzeko aukera eman dezan.
—Bertsotan, antzerkian, telesailetan... denetara animatzen zaren horietakoa zara?
—Bai, gauza guztietan egotea gustatzen zait; hala ere, ikasten nabil batzuetan ezin dela denean egon, aukeratu egin behar dela. ○

Herriko ikono

esanguratsuenak ezagutzeko aukera

Ondarearen Europako Jardunaldietan



Galeako gotorlekuan orain urte bi egindako bisita antzeztua

Bizkaia bideetan zehar leloa aukeratu du Foru Alfundiak aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldietarako. Ekimenagaz bat egin du Getxoko Udalak 3. urtez eta herriko ondarearen ikono esanguratsuenak ezagutzeko aukera emango du urrian zehar. Lau ibilbide antolatu ditu, eta horietako batek herriko toponimiaz gehiago jakitera gonbidatuko gaitu.
Bizkaiko Zubian, Portu Zaharrean eta Galeako gotorlekuan antzeztutako bisita gidatuak eta erakusketak egingo dituzte; horietan, aipatutako txokoen inguruko datuak emateaz gain, indus-

trializazioaz, antzinako lanbideez eta gerra garaiaz berba egingo dute. Horrez gain, Euskara Zerbitzuaren laguntzagaz, *Getxoko bide historikoen toponimia* ibilbide sorta antolatu dute; azken hauek, euskaraz eta Josu Larrañagaren gidaritzapean egingo dira.
Ibilbide bakoitzak egutegi, ordutegi eta iraupen ezberdina izango du eta euskaraz zein gaztelaraz egin ahal izango da (toponimoena izan ezik). Parte hartu gura duenak erreserba egin beharko du aldeaz aurretik, 94 491 08 00 telefonora deituz edo infoturismo@getxo.net helbidera idatziz. ○

YOGA ETA TXANGOIA EGIZUREN ESKUTIK
EGIZU Getxo Euskaldun Elkarteak ikasturteari hasiera eman dio eta horretarako, yoga ikastaroa jarri du martxan 6. urtez. Astelehen eta eguaztenetan San Nikolas Ikastolako Haur Hezkuntzako lonjan izango da, eta Hasier Rekondok gidatuko du taldea. Berbalagunek, ikastolako bazkideek eta Bizarra Lepoaneko lagunek 25 euro ordaindu beharko dituzte, gainontzekoek 30. Bestalde, irailaren 26rako, Elosuara joateko txangoia antolatu dute. Bertan, buztigintza museoa bisitatu eta Landatik ibilaldira egingo dute.
Izena emateko: 619 935 541 egizugetxo@yahoo.com

GETXOPHOTO URRIAREN 11 ARTE IKUSGAI
Getxophoto Nazioarteko Argazki Jaialdiaren egun handiak atzean gelditu badira ere, erakusketak ikusgai egongo dira urriaren 11 arte. Txina, Japon, Hego Korea eta Taiwaneko artisten lanak gune nagusi bitan banatuta daude: alde batetik, Portu Zaharretik Arriuzera, Ereagako pasealekua jarraituz eta, bestetik, Algortako erdigunean. Honez gain, Villamonte Kultur Etxean, Algortako merkatuan, Aixerratan eta Ameztan kalean erakusketa itxiak daude.
Informazio gehiago: www.getxophoto.com

ZUZENDARI ETA BEGIRALE IKASTAROAK
Bizarra Lepoan euskara elkarteak eta Getxoko Udaleko Euskara zerbitzuak astialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko ikastaroak antolatu dituzte. Ikastaroetan izena emateko epea irailaren 30a arte egongo da zabalik eta Algortako Karitate kaleko 1. zenbakian, Bizarra Lepoan elkartearen egoitzan egin beharko da. Begirale izateko agiria lortzeko 200 ordu teoriko eta 120 praktiko bete behar dira; zuzendari titulurako aldiz, 100 ordu teoriko eta 120 praktiko. Agiria lortzen duenak, diru laguntza eskatzeko aukera izango du.



euskara ikasi
eman izena
Uribe kostako AEK
944 304 734
www.aek.org

Txopoetako Jai Batzordea > Mikel Deunaren omenezko jaiak

“Auzotarrek ondo pasatzea dugu helburu, beraientzako dira-eta jaiak”

Asteburu honetan ospatuko dituzte leioztarrek azken jaiak, Txopoeta Mikel Deunaren omenezkoak, irailaren 25etik 29ra. Auzotarrek auzotarrentzat prestatutako jaiak.

—Aurten ere egongo da zereginik Txopoetako jaietan?

—Bai, gauza asko antolatzen gabilta. Barikuan txorizo errea banatuko dugu, eta gauzez erromeria egongo da Aitzama taldeagaz. Zapatuan ere egongo da auke-
ra dantzatzeko Lotxo taldearen eskutik, baina goizean hasiko dira ekimenak. Arrastian umeek pailazoakaz eta talo tai-
lerragaz gozatuko dute. Herri kirol era-
kusketa ere zapatu arrastian izango da. Gainera, mus eta mozzorro txapelketak egingo ditugu egun horretan. Domekan, barriz, haurrentzako puzgarriak jarriko ditugu eta beraientzako jolasak ere pres-
tatu ditugu. Meza ere ospatuko da, eta luntx herrikoia ondoren. Leioako kora-
lak abestuko du eta euskal dantzak eskai-
niko dituzte Lamiakoko Txikiak, Leioako Gure Ohiturak eta Erromoko Zasi-Eskola taldeek. Magia erakustaldia eta txokolatada ere egongo dira. Aurten, gainera, martitzena izango da Mikel Deunaren eguna, hilak 29, eta umeen-



Gari Correa, Ekaitz Bilbao, Iñigo Bilbao eta Aritz Correa

tzako jolasak egingo ditugu, beste gauza askoren artean.

—Programan leku finkoa daukaten ekimenak ere antolatzen dituzue, baina zeintzuk daukate arrakasta handien?

—Gehinbat haurrentzako ekitaldiak dira jende gehien erakartzen dutenak. Dena den, guk auzokoentzat prestatzen ditugu jaiak, jende lar ere ez gara.

—Bai, oso jai herrikoiak dira zuenak, auzokoek gozatzen dituzue batik bat.

—Hori da-eta gure helburua, auzota-
rrek ondo pasatzea, beraientzako dira jaiak. Jai Batzordean lau lagun gaude, baina jendeak laguntzen digu ekitaldie-
tan. Komertzioek ere laguntzen digute, krisia nabaritu arren. Alboko auzoetatik ere hurreratzen da jendea jaiak gozatze-
ra, baina betikoak izaten dira. Gure hel-
burua esandakoa da, auzotarrek ondo pasatzea, gogotsu hartzen baititugu jaiak. ○

Kubako Zine Jaialdia

Kubako **Zinema Txiroaren** Nazioarteko Jaialdia iritsiko da Kultur Leioara **urriaren 5etik 8ra**



Nasija laburmetraiaren pasarte bat

Gibarako (Kuba) Zinema Txiroaren Nazioarteko Jaialdian emandako film labur eta dokumentalak eskainiko ditu Kultur Leioan Mugarik Gabe Gobernu-
Zanpoko Erakundeak, Zinema eta Kooperazio Emanaldien baitan. Urria-
ren 5ean, 7an eta 8an izango da, denak 20:00etan eta doan.

Astelehenean hasiko dira, urriaren 5ean, lau emanaldigaz. *Los elefantes nunca olvidan* film laburra (Venezuela), *Deseada justicia* (Kuba) eta *La hipocresia del deseo* (Espainia) dokumentalak eta *Nasija* (Espainia) film laburra proiektatuko dituzte.

Eguaztenean, oster, urriaren 7an, *Voyage en sol majeur* (Frantzia) doku-

mentala, *El viaje de Said* (Espainia) eta *Hiyab* (Espainia) film laburrak emango dituzte.

Urriaren 8an, azkenik, *La maltrata-da historia de Maria* (Espainia) film laburra eskainiko dute. Gainera, genero ezberdintasunari buruzko hitzaldia eta eztabaida egingo dute Maria Viadero Mugarik Gabeko Genero arduraduna-
ren laguntzagaz.

Baina txiroak ez du esan gura kalitate eza. Humberto Solas kubatar zinema zuzendari eta zinema jaialdiko presiden-
teak esan duenez, “*zinema txiroak ez du esan gura ideiarik edo kalitate artistiko-
rik bako zinema dela, ekonomia xumeko zinema dela baizik*”. ○

OLATUDUN UGERLEKUA PREST URTEBETEAN

“*Krisia dela eta*” eraikuntza atzeratu badute ere, egin egingo dute olatudun ugerlekua. Iaz urrian prest egongo zela iragarri zuten, baina azkenean, urtebete barru egongo da erabiltzeko moduan, Aldundiaren esanetan. Pertsona askoren desadostasuna piztu du egitasmo honek, surferako hondartzak nahikoa daudela, eta hamar milioi euro kostu oso altua dela uste dute eta. Gauzak horrela, hilabete honetan esleituko dute obra.

TRANBIARAKO 10 MILIOI EMANGO DITU LAKUAK

Hamar milioi euro emango du aurten Eusko Jaurlaritzak, Leioako metroa eta EHUKo kanpua lotuko dituen tranbiaren lanetarako, +Euskadi 09 planaren barruan. Krisiari aurre egiteko 367 milioi euro inbertituko duela iragarri zuen irailaren hasieran Patxi Lopez lehendakariak, tranbiarako hamar. Leioako udaletxetik Sarrienara etorbide barria egiteko akordioa sinatu zuten Eneko Arruebarrena alkateak eta lehengo Etxebizitza sailburu Javier Madrazok urte hasieran; beraz, tranbiaren bidearen lehenengo fasea litzateke. Bestalde, Urdulizko ospitala egiteko 20 milioi euro gorde ditu Lopezek planaren baitan.

2011N UDALEKO TRAMITEAK INTERNETEZ

Leioaztarrek internet erabili ahal izango dute 2011tik aurrera Udaleko tramite guztiak egiteko. Tasak ordaindu, erroldan izen eman, bekak eskatu edota kirol zelaia erreserbatu, denetarik egin ahaliko da. Gainera, ostalaritzari buruzko informazioa eskuratu ahaliko da. Leioanet XXI egitasmoaren bigarren fasearen baitan egingo dute. T-Systemsek gauzatuko du, 810.150 euro zuzenduko dizkio Udalak.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO ERROTULUAK eta INPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BETIKO

IKASTOLA

— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.

— Ingelesa 4 urtetik aurrera.

— Frantsesa DBHn.

— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.

— Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...

— Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Karlos Gomez > R.K. Abenturako kidea

“Beti bizi izan gara itsasadarrari bizkarra emoten, baina apurka aldatuz doa jendearen aurreiritzia”

Bigarren urtez egon da aukera itsasadarrean zehar piraguaz ibiltzeko, R. K. Abenturako lagunakaz. Doako zerbitzua eskaini dute udan Udalagaz egin akordioari esker, asteburu honetan egongo da probatzeko azken aukera.

—Itsasadarrean piraguaz ibiltzeko aukera eskaintzen duzue, nola da hori? —Bizikletakaz gertatu moduan, jendea hona dator, piragua hartu eta bere kabuz ibiltzen da itsasadarrean, guk eman azalpenak kontuan hartuta. Monitore bi egoten gara, bata bulegoan eta bestea uretan, jendeak laguntzarik behar badu edo. Batzuk Guggenheimera eta Bizkaiko Zubira joaten dira, baina gehienak inguruan lotzen dira, Sestaoko La Navaleko untiak eta ikustera.

—Nolatan animatu zineten horrelakoak antolatzeraz? —Piraguan ibili gara betidanik. Erandioztarrak izanik, herritarrek itsasadarra urrunetik ikusten zutela ohartuta, horrelako zerbait antolatzeko aukera aurkeztu genion Udalari, eta hark onartu; horrela sortu zen R. K. Abentura. Hortik aurrera beste herri batzuetan ere hasi gara antzekoak antolatzen, Mungian berbarako, Butroi errekan. Udalek



Karlos Ramirez eta Karlos Gomez R. K. Abenturako kideak, Baionaraino egindako ibilaldian

udan haurrentzako prestatu jardueren baitan ere ibili gara.

—Jende asko hurreratu da gainera. —Iaz harrituta lotu ginen, 1.400 bat lagunek parte hartu zuten, eta aurten, antzeko. Esperientzia oso polita izan da. Iaz ere, hasieran umeak zetozen gurasoak bueltatxo egitera, ibilaldi laburrak ziren. Baina aurten ibaiari beldurra kendu dio jendeak eta ibilaldi luzeak egiten dituzte, Bilboraino ere iristen direlarik; askoz denbora gehiago ematen

dute ibilaldian. Oso pozik irteten dira. Beti bizi izan gara itsasadarrari bizkarra emoten, jendeak aurreiritzia zeukan hari buruz, baina apurka aldatuz doa, ibaia garbiago dago. Bultzatu dugu batetik kirolaren arloa, eta bestetik, turismo aktiboaren arloa, hiria beste ikuspuntu batetik ikustarazteko, hots, uretatik. Jendea orain hasi da konturatzen ikuspegi horretaz. Gehienek errepikatzen dute eta datorren urtean jarraitzea espero dugu. ○

Merkataritza Plana

amaitzear daukate **1.300 inkesta egin ostean**, ekimenak abiatuko dituzte



Herriko merkataritza sustatzeko helburua daukate merkatariek eta Udalak

Merkataritza Biziberritzeko II. Planari azken ukituak ematen ari zaizkio Udala zein merkatariek, eta laster egongo da prest. Herriko merkataritza bultzatzeko helburua daukate. Batzuek eta besteek hartu beharreko konpromisoak bilduko ditu. Kontsumitzaileen artean aldaketa handia nabaritu dute, eta merkataritza gune ireki horretarako joeran sartu gura zuten Erandio, Udaletik jakinarazi dutenez.

Helburu hori eskuratzeko herria aisialdi-gune eta merkataritza-gune gisa ulertarazi behar dela uste dute. Horretarako ekin-tza batzuk abiatu behar direla ondorioztatu zuten. Baina diagnosi aproposa egin aurretik, eta “*modu integralean garatu*”. Lehenengo plana agortuta, bestelako ekimenak

abiatzeko ikuspegi integrala behar zutela konturatu ziren, horregatik plangintza barria abiatzea.

Altza eta Astrabudua auzoak mikro-merkatuak direla konturatu dira, “*kontsumitzaileen gastuaren parte handia geratzen da herri barruan*”, Udalaren arabera. Ondorio positiboa dela uste du. Baina kontsumitzaile profil barria topatu dute, herrian lan egiten dutenena. Horiengana zuzendu gura dituzte ekimenak, hain zuzen ere. Badaukate ekimen bat zehaztuta, gainera. Merkatariei eguerdian, eta jai berezietan (gabonetan berbarako) diren zapatuetan, komertzioak arratsalde zabalatzeko aukera luzatuko die Udalak. Industrialdera horri buruzko informazioa helaraziko du. ○

ERDI AROKO AZOKA HILAREN 26AN ETA 27AN

Iraganeko garaia joko du herriak datorren aste akabuan, irailaren 26an eta 27an. Izan ere, Erdi Aroko Azoka ospatuko dute Altzaga auzoan. Oinezkoentzako kaleetan 80 postu jarriko dituzte. Gainera, tailerrak, kale-animazioa, astotxoaren karabana, oken paseoa, arku-tiroa, zoko arabiarra, postu gastronomikoak egingo dituzte Erdi Aroko Azoka dela eta. Bitxilore Aisialdi Elkarteak antolatu du. Jaki eta produktu artisauak dastatzeko aukera ezin hobea izango da.

GREZIAR ETA SUEDIAR GAZTEAK ERANDION

Elkartruke programaren baitan Greziatik eta Suediatik iritsi dira aurten gazteak. Bigarrenez abiatu du ekimena Udalak eta irailaren hasieran egon ziren Erandion. Greziatik heldu ziren zortzi eta Suediatik sei, bertako hamalau gazte gaz bizi izan dira. Izan ere, aurten familiatan hartu dituzte gazteak. Aurrerago Greziara eta Suediara joango dira hemengo gazteak. Programa horregaz “*bakoitzaren kultura, ohitura eta hizkuntza elkarri ezagutarazi, berdintasuna sustatu eta diskriminazioa baztertzea*” gura dute.

AUTODEFENTSA IKASTAROAK URRIAN

Urriaren 15a baino lehen eman behar du izena emakumeentzako autodefentsa ikastaroetan parte hartu gura duenak. Astrabuduan urriaren 17an eta 18an egingo dute, eta Altzagan, 24an eta 25ean. Emakume gazteei zuzenduta egongo da azken hori, 15-35 urte bitartekoei. Gainera, bost eguneko hirugarren ikastaro bat emango dute Altzagan urriaren 19an eta 26an, eta azaroaren 2an, 9an eta 16an. Auzoetako kiroldegietan egingo dituzte, doan izango dira.

Izen-ematea:
Gazte Bulegoan (946025891) eta
Behargintzan (944175616)

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

DANTZALDI IBILTARIAREN
IKASTAROA HILAREN 23AN

Tradiziozko dantza ikastaro egonkorrak eskainiko dituzte Aiko taldekoek Bizkaiko hainbat herritan, Sopela eta Erandio barne. Irailaren 23an aurkeztuko dute Sopelan. Erandion, barriz, 21ean egingo dute. Bizkaian aurren herriko herri ibili diren Dantzaldi Ibiltaria zikloko tailerren lehen edizioa arrakasta ikusita, sei herritan antolatu ditu ikastaro egonkorrak Aikok. Izan ere, milatik gora izan dira partaideak urtarrietik egin dituzten dantzaldietan. Ikastaro trinkoak urritik ekainera izango dira, 90 euroren truke, eta astean ordu eta erdi iraungo du. “*Dantzan ikasteko beste modu bat badagoela*” uste dute Aikoko lagunek, “*naturalagoa den beste modu bat, erlaxatuagoa eta dibertigarriagoa; musika jotzen eta dantzatzeko dugu, baina gainera, partekatuta irakatsi egiten dugu*”, azaldu dute. “Oinak mugitzen ditugu doinu bat entzutean, balantzaka hasten gara edo oin-puntakaz erritmoa markatzen dugu, musika sentitzen ari gara dagoeneko; dantzarako prest gaude”.

Informazio gehiago:
www.aikotaldea.com

UDALAREN WEBGUNEAN
BARRIZTU DUTE UDAN

Sopelako Udaleko webgunea barriztu dute uda honetan zehar, eta Euskadi.net portal barruan sartu dute, gunean bertan iragarri dutenez. Are gehiago, Udaletik jakinarazi dutenez, “*Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengoetako udala da bere webgunea Euskadi.net ingurura batzen duena*”. Orrialdea berrantolatu dute “*informazioa errazago aurkitzeko asmoz*”. Udaleko sailetako informazioa kontsulta daiteke, agenda eta kultur ekimenak ezagu daitezke eta herrian gertatutakoaren barri jaso daiteke webgunearen bitartez. Gainera, betiko helbidean topa daiteke hori guztia.

www.sopelana.net

Hondartzak denek,
kirolariek eta bainu-hartzaileek, erabil ditzagun
xedeaz **arautegia** atera du Udalak



Sopelako hondartza, Peñonetik ikusita

Hondartzen erabilera erregulatu du Udalak, batez ere, kirolariek zein bainu-hartzaileek, guztiek erabili ahal izateko, Udaletik jakinarazi dutenez. Izan ere, “*kexa asko egon da surfari eta bainu-hartzaileen artean arazoak sortu direlako espazio berbera erabiltzean*”, azaldu du Josu Landaluze zinegotziak. Hemendik aurrera beraz, bandera gorri-urdinez mugatuko dute surfarientzako tokia, “*eta eurak ere pozik daude*”. Arautegia atera aurretik euren kaz partekatuta zutela ere esan du.

Beste arau batzuk ere batzen ditu

dokumentuak. Kirol batzuk ezingo dira praktikatu, jabalina jaurtiketa eta antzekoak. Animaliarik ere ez da onartuko, uda partean beste erabiltzaileak arazoak sortu direlako, “*baina hori ez da gauza barria, urteak dira sartu ezin direla, aurren askoz txakur gutxiago egon da halere, surfariek ere lagundu digute horretan*”, dio Landaluzek.

Arauok urratzen dituenak isuna jaso dezake, bandera gorriagaz bainatzen denak barne. “*Sorosleen bizitza ere arriskuan jartzen dute, arazo handia izaten da eurentzako*”. ○

Josu Landaluze > Hirigintza zinegotzia

“Ez dugu jaso bandarako kontratu barria ateratzea, une txarrean gabiltzalako”



Josu Landaluze

Uribe-Bazterra Musika Bandako buru Begoña Hervasek Udalaren jarrera arbuia-tu zuen, Udalak kontratua barrizteko diru nahikorik ez zuela jakinarazi ondoren. Baina Udala ez dago batere ados hark esandakoakaz, eta beraz, Josu Landaluze zinegotziaren iritzia ere jaso gura izan dugu.

—Kontratua eteteak bandaren desagerpena suposatu duela esan zuen Begoña Hervasek. Zein da zuen iritzia?

—Urte biko kontratua sinatu genuen enpresa bategaz, beraien zerbitzua kontratatu genuen; ekainean amaitu zen. Aurrekontuetan ez genuen jaso jarraitzea, une ekonomiko txarrean gabiltzalako, guztion moduan. Bestela izan balitz, barriro aterako zatekeen gonbidapena egitasmoak aurkezteko. Baina ez da atera eta kitto, hori da gertatu dena. Gero bakoitzak irakur dezala gura duen moduan, baina hori da gertatu dena.

—Beraz, ez zaudete batere ados bandako zuzendariaren iritziaz, ezta?

—Hara! Jende askok esan du banda hori

alkateak atera zuela. Alkateari itzel gustatzen zaio musika eta bultzatu zuen, baina bandak ez du jotzen bakarrik Sopelan, beste herri batzuetan ere ibili da; eta Udalak ez du ezer esan horri buruz. Nahiko egin du entseatzeko lokala uzten, perkusio tresnak erosi zituen, orain musika eskolan daudenak. Udalak nahikoa egin du, eta hortik aurrera, ez dago gehiago. Musika eskola beste enpresa batek daroa, beste kontratu bategaz, eta epe bat dauka. Berak esan du eskola Maitena Aurreko-

«Zeintzuk zerbitzu kendu? Bada, ezinbestekoak ez direnak»

etxearentzat egin dela. Ez; bera da enpresako arduraduna eta kontratua amaitzean barriro urtengo da gonbidapena. Berak lortuz gero ondo, eta ez badu lortzen sentitzen dugu, beste batek eroango du. Hervasek dio aurrekontua ere igo dela, bai, baina beste zerbitzuak eman behar direlako. Zeintzuk kendu? Bada, ezinbestekoak ez direnak. ○

DIDAK

hAMILTON

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
 - Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
 - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.

Tf. 94 676 30 12

info@didakhamilton.com

4 bide

pinturak

RIPOLIN

BONDÉX

DYRUP

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA

Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA

IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA

Tf. 94 676 02 66

Email.: sopela@ikastola.net

LAIK Taberna

Bentatu 2

48600 Sopela

Tf. 94 676 03 28

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,

etxera eroango dizugu

egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78

Tf. 94 491 27 34

20UK

UK21

Kultur Etxeetako ikastaroetan izena eman behar da irailaren 28tik urriaren 6ra bitartean, 25 tailerren artean aukera daiteke

Urriaren 28an abiatuko dituzte ikasturte honetako ikastaroak kultur etxeetan eta ia 450 lagunentzako lekua dago. Aurten matrikula aurea egin behar dute, plaza kopurua hobeto kalkulatu eta zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.

Irailaren 28tik urriaren 6ra eman behar da izena Santa Ana eta Berangoeta Kultur Etxeetan egingo dituzten ikastaroetan parte hartzeko, han bertan. Data horietan ere egin beharko dute matrikula aurea azarotik aurrera eskainiko dituzten ikastaroetarako; matrikula aurea, aurreko urteetako arrakasta dela eta. Ez ei da leku librerik geratzen normalean, eta ikastaro bakoitzean interesa daukaten lagunen kopurua aurretik jakinda, aurreikuspenak egin ahal izango dituzte. Horrela, plaza gehiago eskain ditzakete beharrezkoa eta posible balitz. Gaiak adin ezberdineko herritarrentzako erakargarriak izan daitezela diradi, baita baliagarriak izan daitezela ere, Udaletik nabarmendu dutenez.

Osasuna, dantzak, txinatar borroka-arteak edota antzerkia, guztira 25 tailer emango dituzte herriko kultur etxe bietan, Santa Anakoan gehien. Ikasturte osoa, hau da, ekainera arte iraungo dute



Berangoetako Kultur Etxean egindako zur-lanketa ikastaroa, 2004an

tai-chi, altzariak zaharbarritu, margolaritza ingelesez ikasteko tailerrak, *street-dance*, sabel-dantza, zur-lanketa edota eskulanen ikastaroak. Txalapartakoa eta *wushu* borroka-arte, barriz, laburragoak izango dira; baita argazkilaritzari buruz eskainiko dituzten hirurak ere.

Berangoetako Kultur Etxean 11 ikastaro egingo dituzte. Datorren urteko ekainera arte iraungo dute euskara, eta haurrentzako musika zein antzerkikoek. Euskarari eman dio garrantzia handien

Udalak. “Ahalik eta erraztasun handien eskaintzen saiatzen gara, herritarrek euskara ikasteko aukera izan dezaten”, jakinarazi du Izaskun Zubiaur Kultura zinegotziak.

Osasunari buruzko gaiei ere tarte eskainiko diete Berangoetan. Gainera, hurrek gorputz-espresioa ikasteko aukera izango dute. Nagusiek, ordea, ingelesez bidaiatzeko eta cava dastatzen ikasteko tailerretan parte hartu ahaliko dute, besteak beste. ○

Naiara Gorroño Viteri > Mito tailerreko irakaslea

“Mitoak norbere burua hobeto ezagutzeko erabiliko ditugu”



Naiara Gorroño Viteri Goñi Portaleko sarreran

Irailaren 30a arte, izena eman ahal izango da azaroan Goñi Portalen egingo den *Mito tailerra*; *ipuinen ispiluan begira* lantegian. Uste baino eragin handiagoa dute mitoek gudan eta norbere burua ezagutzeko tresna egokia izan daitezke. Premisa horretatik abiatuta, emakumeei zuzendutako tailer praktikoa prestatu dute Naiara Gorroño eta Martina Etxegaraik.

—Zelan sortu zen tailerrera? —Martina eta biok elkartu ginen; bera psikologiaren mundutik dator eta ni komunikazioaren eta sormenaren mundutik. Esparru biak uztartuz sortu genuen tailerra. —Zer aurkituko dugu tailerrean? —Mitoak norbere burua hobeto ezagutzeko tresna moduan erabiliko ditugu; gure kontzientzian gehiago sakondu eta bizitzako zein puntutan gauden

ikusten saiatuko gara. Mitoak beti egon dira gizartean. —Zein mito landuko duzue? —Batez ere, jainko eta jainkosetan oinarrituko gara. Arketipoak aztertuko ditugu, bakoitzak zein jainko edo jainkosa duen aktiboago. Egoeraren arabera bata edo bestea aktibatzen dugu eta garrantzitsua da jakitea zein den. Gaur

«Jolasa eta sormena izango dira ikastaroaren oinarria»

egungo gizartean ez, baina antzina presentzia handia zuten mitoek. —Nola landuko duzue hori guztia? —Jolasa eta sormena izango dira ikastaroaren oinarria. Teoria ere landuko dugu, baina ez da beharrezkoa mitotetan aditua izatea ikastaroan parte hartzeko. Bertan emango dugu beharrezko informazioa. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

BASTARTEA



URDULIZ

Teléfono: 840 701 120

Ajuria
taberna

Andres Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri 4, Tf. 94 460 30 03
ALGORTA



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



EUSKARA IKASTAROAK
HASIBERRI, GURASO ETA
ETORKINENTZAT

Euskara ikasi gura duten gurasoentzat *Hasiberriak* eta *Gurasoak lagunduz* ikastaroak antolatu ditu Gorlizko Udalak. 2009ko urritik 2010eko ekainera bitartean egingo dira eta 96 euro ordaindu beharko dira parte hartu ahal izateko. Horrez gain, *Aisa* ikastaroa egingo dute Gorlizen erroldatutako 16 urtetik gorako etorkinentzat. Azken honen matrikularen prezioa, 25 eurokoa da eta urriaren 15a arte egongo da zabalik izena emateko epea.

INFORMAZIO PANELAK
URDULIZEN

Udalaren esparruko gaiak edota herriko elkarteek zabaldu gura duten informazioa jasotzeko, hamaika argibide-taula barri jarri ditu Urdulizko Udalak herrian zehar. Honela, Gazte Plana foroetan sortutako proposamenari erantzun gura dio Udalak. Komunikabide eraginkorra eskura jartzen eta eraikinak garbi mantentzen saiatuko dira.

IKASTEKO GELAK
ZABALIK GOÑI PORTALEN

Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3. mailako ikasleek, ikasteko eskolak eta etxerako lanak egiteko begirale-laguntzaile zerbitzua izango dute urriaren 5etik aurrera Plentziako Goñi Portal Kultur Etxean. Astelehenetik eguenera 17:30etik 19:30era egongo da martxan zerbitzua eta 30 euro ordaindu beharko dira ikasturte osorako.

BARRIKA

Irailaren 30a arte alegazioak aurkez daitezke



Barrikako hamalau txalet legez kanpokotzat jo ditu Espainiako Auzitegi Gorenak

Prentsan Barrikabasoko gune babestua-ren inguruan sortu den eztabaida ikusi ahal izan dugu azken asteotan. Izan ere, gune horretan dauden hamalau luxuzko txalet legez kanpokotzat jo ditu Espai-niako Auzitegi Gorenak, horien eraikun-tza baimentzeko lurren kalifikazioa legez kanpokoia izan zelako. Hala ere, Udalak argitaratutako prentsa oharrean, azpima-rratu du “*epaiak ez duela etxebizitz*en *eraikuntza legez kanpokotzat jotzen eta ez dituela emandako hirigintza lizentziak*

zalantzan jartzen”. Kaltetuen artean adostasuna lortu gura duela ere adierazi du. Bestalde, Txipio Bai talde naturalis-tak, “*ingurumenaren babes*a” defenda-tuko duela adierazi du. Etxeak ez erais-tea onartu arren, lau puntuko konpon-bide plana aurkeztu du; kalifikazio al-daketa gehiagorik ez egotea eta erai-kuntza egitasmoak bertan behera uztea eskatuz. Irailaren 30a arte, plangintza-aurrerakinari alegazioak aurkezteko aukera dago. ○

Ira. 21 - Urr. 04

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

LEIOA

► **Munduko musika tresnak.**
Irailaren 17tik azaroaren 1era. Kultur Leioako erakusketa aretoan.

ERANDIO

► **Tierra de Campos eta El Cerrato eskualdea (Palentzia).** Gaztela eta Leongo Zentroak antolatuta. Irailaren 21etik 26ra, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean.

GETXO

► **Fotorretro Getxo 2009.** Irailaren 23tik 30era. Algortako Geltokia plazan, ordutegirik barik. Doan.

GORLIZ

► **Antonio Lopezen argazkiak.**
Irailaren 23tik 30era, 19:00-21:00, Erakusgelan.

MUSIKA

ERANDIO

► **Dantzaldia Galea orkestagaz.**
Irailaren 27an, 17:30-20:30.
Astrabuduko Josu Murueta plazan.

LEIOA

► **Haig Yazdjian (Grezia). XX. Musika Denboraldia.** Urriaren 9an, Kultur Leioako Auditoriumen, 21:00etan. 15 euro.

IKASTAROAK

GETXO

► **Berziklatzea artean tailerra.**
Irailaren 21ean, 24an eta 28an, eta urriaren 1ean, 9an eta 16an. Villamonteko kultur etxean, 19:00-21:00, 5 euro. Izen-ematea: Gazteentzako Informazio Bulegoan, Algortan (94 466 03 53).

► **Musika**

Umeentzako opera Areetan

Opera pertsona helduentzat eta dotoreentzat soilik delako ustea dago gure artean, baina antza, inondik inora. Are gehiago, txikitatik ikuskizun mota hori ezagutzeko apustua dauka Opera Divertimento taldeak. Haurrentzako prestatu dute *Bazen behin... opera* lana eta Areetako Andres Isasi Musika Eskolan antzeztuko dute irailaren 27an. Diotenez, operaren munduaz umeen interesa piztu, mundu horretara gonbidatu eta horretan hezte

► **Non:** Andres Isasi Musika Eskolan ► **Noiz:** Irailak 27, domeka

LEIOA

► **Photoshop I.** Aterpe Gazte Bulegoa. Irailaren 30etik urriaren 28ra astelehenero eta eguaztenero, 18:30-20:30. 20 euro.

ERANDIO

► **Sendabelarrak eta preparauak.**
Urriak 1, 8, 15, 22 eta 29, eta azaroak 5. Postetxe zaharrean, 18:30-21:00. Erroldatuek 5 euro, ez-erroldatuek 8 euro. Izen-ematea Gazte Informazio Bulegoan.

ANTZERKIA

GETXO

► **Marika de playa.** Glu-glu taldea. Irailaren 26an, 20:00etan, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 8-10 euro.

ERANDIO

► **Comisaria especial de mujeres. Emakume Zirkuitua 2009.** Irailaren 26an, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean, 20:00etan. 2 euro.

PLENTZIA

► **Goazen itsasora. Euskarazko antzeppen musikala.** Urriaren 2an, 18:30ean. Umeentzat.

ZINEMA

ERANDIO

► **Transformers.** Irailaren 21ean Altzagako Irailaren 23a plazan, 21:00etan. Doan.

BESTEAK

BERANGO

► **Txangoa Gernikako Batzar Etxera.** Karabiazpi Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarateak antolatuta. Urriaren 3an, 16:00etan.
► **Bizikleta martxa Urdulizera.** Irailaren 26an, zapatua, 11:00etan Moreaga parketik. Europako Mugikortasun Jasangarriaren Astea dela eta.

PLENTZIA

► **Astizko Aterpera asteburu pasa (Larraun), 6-10 urtekoentzat.**
Urriaren 2tik 4ra. Erroldatuek 85 euro eta erroldatu bakoek 95 euro. Izena eman Goñi Portalen.
► **Urteera: Kilometroak 2009, Donostian.** Urriaren 4an. Izena eman Goñi Portalen. 5 euro.
► **Ikasle gelak lehen hezkuntzarako.** Urriaren 5etik aurrera ikasturte osoan, astelehenetik eguenera eta 17:30etik 19:30era.
► **Urteera: Nafarroa Oinez 2009, Sakanan.** Urriaren 18an. Izena eman Goñi Portalen. 6 euro.

GORLIZ

► **Euskeraz Olgetan 1-10 urtekoentzat.** Irailaren 26an, Iberrebarrin (euria bada pilotalekuan), 12:00-14:00.
► **XVIII. Mountain Bike Gorliz.** Irailaren 27an, Kiroldegian, 09:30ean.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Zoriontzeko emanaldia

Getxoko Nazioarteko Folk jaialdiak zilarrezko ezteiak bete dituela ospatzeko “euskal musikari omenaldia” egin gura izan dio eta hala, hainbat euskal kantari eta talde batu ziren hilaren 6an Areetan. Emanaldi hunkigarria eskaini zuten Oskorri, Oreka Tx, Mikel Urdangarin, Gose, Maddi Oihenart eta Niko Etxartek bakarka zein alkarregaz jardunez, eta egia esan, alkarregaz jotzearen nahasketa benetan gozagarria izan zen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Draga handiena

uretaratu du La Navalek

Sestaoko ontziolak ekainean Jan de Nul armadore belgikarrari entregatutako “Cristobal Colon” dragaren bikotxa da irailaren 4an ureratutako “Leiv Eiriksson” draga, ezkerreko irudikoa. Itsas hondotik harea ateratzeko ontziak dira eta munduko handienak direla jakinarazi dute eraikitzaileek. “Leiv Eiriksson” ere bere bikiaren bila abiatuko da datorren urtean (oraindino sistema, ekipamentu eta abarren probak egin behar dizkiotelako), La Navalek Jan de Nulentzat ere eraiki du-eta. 213,5 metro luze, 41 metroko erruna, 20 metroko eskora eta 46.000 metro kubikoko edukiera duen draga da Sestaoko ontziola ezagunak egindako “Leiv Eiriksson”. Hain handiak ez badira ere, gehiago ere uretara ditzala opa diogu!

ASIER MENTXAKA

[berbetan]

Ondo ezagutzen ditu Pou anaia eskalatzaile gasteiztar ezagunak Jabi Baraiazarrak (Areeta, 1961), 2002tik gaur arte, poutarrek *7 Pareta 7 Kontinente* proiektua hasi zutenetik oraintsu Orbayu bidea modu askean kateatu dutenera arte, euren alboan ibili da areetarra: argazkiak ataratzen, bideoak grabatzen e.a. EITBko kirol erredakzioan egiten du behar Baraiazarrak eta katea horrek eskaintzen dituen poutarren balentrien irudi ikaragarrien atzean bere begiak daude. Horretarako sokatik zintzilik egon behar izaten du 18-19 urtegaz eskalatzeko hasi zen Baraiazarrak ere.

Jabi Baraiazarra

Poutarren hirugarren katebegia

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Izerdi asko bota duzu oraingo erronkan poutarren alboan?

—Oraingoan eurek bakarrik egin dute, nire parte-hartzea oso eskasa izan da, sostengu logistikoa e.a., lan apur bat egin dut telebistarako eta argazki batzuk ataratzen, baina beste espedizioak alderatuta oraingoan eurek egin dute dana. Apirilean Argentinan egon ginen, eta han bai, hirurentzako lana egon zen, eskaladak hirurok alkarregaz egin genituen, baina oraingo erronka bestelakoa zen; hura alpinismoko erronka izan zen eta oraingoa harkaitz eskalada, gainera era askean burutu dute.

—Zertan oinarritu da Orbayukoa?

—Picu Urriellu, asturiarrek hala deitzea gura dute-eta (Naranjo de Bulnes legez ere ezaguna) betidanik izan da poutarrentzat berezia; txikitako lehenengo eskaladak han egin zituzten. Euren eskalada ibilbidean mugaz muga ibili dira euren mailari dagokionez, hala: Pilar del Cantabrico bidea (8a+/500 m) era


askean egun berean egiten lehenengoak izan ziren (1997), Naranjoko lau aldeak egun berean egiten lehenengoak (1998; 10:30 h., orduko azkarrenak) e.a. Bide horien eskaladak markatu zuen hauen ibilbidea eta garai hartan ikusi zituzten, edo behintzat amesten hasi ziren, zein bide egin ahal izango zituzten eskalada librean. Harrezkero, urtero joan dira Urriellura, eta tarteka oso marka onak egin dituzte, esaterako: Zunbeltz bidea

“Enekoren eta lkerren buruetan beti egon da Urrielluko bide horiek guztiak era askean kateatzea”

era askean (2003), garai hartan merezi zuen oihartzuna izan ez bazuen ere, oraindino errepikatu barik dago era askean. Eskalada hori orain Orbayu doan bidetik oso hurbil doa. Garai hartarako pareta aztertzen ibili ziren, ia nondik egin zezaketen bide barria e.a., baina hor lotu zen kontua. Handik urte batzuetara, 2006an, beste bide gogor bat

askatu zuten, 5º Imperio (8b/500 m), oraindino errepikatu ez dena; eta urte berean egin zuten Lurgorri (8c+/250m) bidea ere, garai hartan Naranjoko bide-rik zailena. Naranjo garai batean oso modan egon zen, eskalada piloa egin ziren eta hormak bidez josita daude, baina orduan, 80. hamarkadan, zabaldutako bide garrantzitsuenak eta zailenak era artifizialean egin ziren. Enekoren eta lkerren buruetan betidanik egon dena

da bide horiek guztiak era askean kateatzea, liberatzea; eta ikusi zuten bide mitiko horietako bat, Mediterraneo (artifizialeko luzerik zailenak), era askean eskala zitekeela, eta hortik sortu zen Orbayuren proiektua. Aztertuta zute-nez, eta bideak zabaltzen daukaten esperientziagatik, bazekiten denbora luzea beharko zutela, oso zaila izango zela.



Ekainetik irail hasierara ibili dira horretan, bideak zabaltzen, probatzen; azke-nean 8 ordu ingurutan jarri dute marka. —**Baina, non datza Orbayu erronka honetako benetako zailtasuna.**

—Orbayu, ez da goitik beherako bide barria, baizik eta Mediterraneoko luzerik zailenera batu arte zabaldu dituzten lau luze berrik (120m-ko bide berria), Mediterraneoko bi luze zailenek (era askean egitea) eta handik gora beste bide errazago eta zaharrago batzuek osatzen dute. Naranjoko ezaugarrietako bat da 250 m-ra eskalada oso makurtua dela, oso konplexua, baina handik gora pareta beste aldera etzaten da; errazagoa izanik ere eskalada oso arriskutsua da, seguru oso gutxi daudelako. Zabaldutako lau luze barriak goi mailakoak dira, oso arriskutsuak eta gogorrak.

—**Big Walleko (pareta handia) munduko biderik zailena ei da orain Orbayu?**

—Horren inguruan eztabaida sortu da, nik uste hori sanoa dela kirol honetarako, eta beharrezkoa ere bai. Munduko zailena dela esatea, ez da “munduko one-nak gara” esatea, hauen asmoa izan da batez ere Urrielluk mundu osoan oihartzuna izatea; orain arte egin izan dituzten bideak errepikatuz inor ez delako hurreratu, eta aldizkari berezietuek ez dutelako bide horien aipamenik egiten; eta jendea harrituta dago horrelako eskaladak egonda ere, atzerriko eskalatzaileek ez delako etortzen horiek egitera. Orain, historia honegaz eta munduko biderik zailena esaten baduzu, jende guztia erne ipintzen da, eta konparazioak hasten dira, hori ona da! Eskaldan asko egin behar da berba, kritikatzeko erraztasun handia daukagu eta albokoari egurra emateko, baina uste dut kontu hau onerako izango dela, hasi direlako dagoeneko bide hau konparatzen munduko beste bigaz: Yosemite dago bata (AEB) eta Madagaskarren bestea. Luzeran oso ezberdinak dira, besteak luzeagoak baina zailtasunean... Orbayuk markatzen duena da

zailtasun handiena, 9 mailaren ingurukoa, besteek ez dute maila hori, baina agian luze gehiago dituzte goi mailakok... Gainera, hau kareharrizkoa da, besteak granitozkoak... Edozein kasutan munduko biderik zailenen artean dago, eta bide horiek ez dira hainbeste; eta esango nuke, ez dut uste okertuko naizenik, arriskutsuena hau dela; luzeak ase-

“Eztabaidak eztabaida, munduko biderik zailenen artean dago Orbayu, eta bide horiek ez dira hainbeste”

guratzeko moduak Naranjon oso-oso bereziak direlako, oso-oso txarrak, eta kolpeak jasan daitezke, ez mingarriak, ondorio oso latzekoak baino. Horregatik, agian, goi mailako lagun eskalatzaile atzerritarrek beti aitzakiaren bat ipini digute etortzeko esan diegunean! Nik uste aurrerantzean gauzak aldatuko direla, datorren urtean nazioarteko izen handiko eskalatzaileek bisitatuko dutela Urriellu.

—**Etorkizunerako egitasmorik?**

—Hiru urteko proiektu batean pentsatzen gabilta; eroan duten ibildea kontuan hartuta, nahastu gura ditugu erronka horretan alde batetik, zailtasuna, pareta handietan egiten den eskalada (Orbayu lakoak) eta leku ahalik eta isolatu eta ezezagunenak; horrelakoak bilatzen ga-

“Ezin dut eurek duten eskalada maila hartu, baina euren akats txikiak hartzen nabil, itxuraz!”

biltza. *7 pareta 7 kontinente* ekimenaren antzekoa izango da, baina zailtasunaren aldetik buelta bat emanda. Oso gutxi bisitatutako lekuak (Afrika, Asia, Ipar Poloa) izango dira, hor baldintzak oso gogorrak izaten dira; azken finean, Orbayu lako bidea gogorra da teknikoki, psikologikoki, baina ordu bi eta erdira

Arenas de Cabrales dago edozein momentutan jaitsi, eta azpizun ederra jan dezakegu sagardoagaz, eta 3 orduan etxean! Leku isolatuetan ez duzu hori egiterik. Gero, duda barik Naranjon ere badira oraindino erronkak! Nik uste 2-3 urtera beste pauso bat emango dutela han, bideak liberatzeko asmo horretan.

—**Zelakoa da Pou anaiei alboan ibiltzea?**

—Eurekaz oso gustura nabil, oso harreman estua daukagu, hainbeste espedizio eta hainbeste denbora alkarregaz... Ia Egunero hitz egiten dut eurekaz! Beti dago planen bat antolatu beharra, gauza hauek guztiek atzetik lan handia eskatzen dutelako; informazioa batu, web orria mantendu, argazkiak, entrenamenduak e.a. Esaten didate euren gero eta antza handiagoa daukadala...

—**Hirugarren Pou anaia, zu?**

—Bai, abizena aldatu beharko dudala esaten didate, askok hirugarren Pou deitzen didate dagoeneko! (kar-kar). Kontua da ezin dudala eurek duten eskalada maila hartu, argi dago, baina euren akats txikiak hartzen nabil, itxuraz! Gauzak ahazten zaizkidalako-eta... Baina harremana, dagoeneko anaia artekoa

Iker eta Eneko Pou > eskalatzaileak

“Bere sostengua askotan bilatzen dugun pertsona horietakoa da guretzat Jabi”



Eneko eta Iker Pou Jabi Baraiazarra erdian dutela (argazkilaria: Jabi Baraiazarra)

Tarte honetan Pou anaiei berbak batu ditugu, Baraiazarraren begiak alboan edukitzearen esperientzia kontatu diezaguten.

—**Argazkiak, bideoak... zuen irudiak, baina Baraiazarrak ere paretan zintzilik egon behar du horiek danak ataratzeko.**

—Betiko kontua; kameraren beste aldean lan egiten duena ez da agertzen! Jabi parte oso garrantzitsua da gure taldean, orain dela urte askotik, *7 pareta 7 Kontinente* proiektua hasi genuenetik egon da gurekin

kameraren beste aldean; gaur egun ezinbesteko kidea da, bai kamera bezala bai lagun moduan ere.

—**Kamera eroateaz gain, zuen alboan eskalatzeke saioan egon behar.** —Dudarik gabe! Oso eskalatzaile trebea da, ona. Urte asko daroaz eskalatzen eta oso ondo daki non egon behar duen, bai argazkia botatzeko orduan, bai lagundu behar duenean. Argi dago, sasoi horretan ez balego ezingo zukeela gurekin etorri, askotan soka tinkorik gabe eskalatzen dugulako, eta eskalatuz

igo behar; oraintsu Argentinan gertatu moduan, han Jabik guk beste eskalatu zuen; oso trebea da mendi mailan.

—**Askok 3. Poutzat dutela entzun dugu.**

—Bai, bai. Harreman berezia dugu, beti gure alde dago, arazoak ditugunean ere hor dago beti, bai mendian baita beste kontuetan ere: hedabideen kontuetan e.a. Bere sostengua askotan bilatzen dugun pertsona horietakoa da guretzat.

—**Beragaz gertatutako bizipen bereziren bat gordetzen duzue?**

—Trangokoa gehien bat, *7 pareta 7 kontinenteko* 5. pareta hori egin genueneko: Jabik 9 kilo galdu zituen, Ikerrek 4 eta nik 7. Etxera bueltatzean Anak (Jabiren emaztea) esan zigun ea zer egin genuen berarekin?! Geroztik ez zela pertsona bera! Guk, barrezka galdetzen genion, ea zein zentzutan ez zen pertsona bera?

—**Proiektu barriaz barririk?**

—Beste proiektu handi batean sartuko garela, baina oraindik ezin dugu ezer zehaztu, bene-benetan, ez daukagulako ezertxo ere lotuta. Oraindik Orbayuko kontuan sartuta gabilta. Printzipioz udazken honetan hasiko gara horretan pentsatzen eta prestatzen; hasteko asmoa, ia ziur, hurrengo urte hasiera.

Informazio gehiago: www.pouanaia.com



zure **diru-laguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / uk@aldizkaria.biz / Tf. 94 491 13 37



Bidaia, jendea, natura...

Honezkero ez luke aurkezpenik behar, UK kideon eta begiraleen artean hamaika alditan ibili delako Aitor Galbarriartu, beti argazki ederrak helaraziz danon gozagarri ipin ditzagun. Eta oraingoan ere irudi sorta hau utzi digu AEBetara abiatu aurretik 44 urteko argazkilari sopeloztarrak. ETBko kamera da, baina argazki kameran gordetzen ditu guretzat altxorrak direnak. Lehiaketa andana irabazi du bere argazkigintzako oinarri diren bidaia, natura, paisaia eta jendearen irudiakaz, hauek ere horren isla dira: Bosnia, Ekuador, Erroma edota Sestaon ateratakoak, zein aurrez aurre begiratzen digun azaleko matxinsaltoarena.

Argazkiak: **Aitor Galbarriartu Ayo**









Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

[liburuak]


Capoteren hilotzak 25 urte

Gosaria Tiffanysen, Kamaleoientzako musika eta Odol hotzean aspaldi euskaraz

Gehienetan urteurrenak aitzakia baino ez dira izaten, baina batzuetan izoztutako perlak urtzeko aukera eskaintzen digute, egunerokotasunik galtzen ez duten aukera “zaharren”, ahaztuen, izoztuen proposamen freskoak egiteko parada ematen dute. Hala, horrelako baten aurrean jartzen zaitugu, irakurle: 25 urte bete barri dira eta Truman Capote (Truman Streckfus Persons benetako izenez) idazle eta kazetari estatubatuarra hil zenetik, eta esan legez, urteurrenaren aitzakiagaz, bere obrara hurreratzeko gonbita da hurrengo. Bide batez, oraingoan aukera itzela dugulako euskaldunok, idazle bikain horren hainbat lan gure hizkuntzan

«**Tipo xelebrea, ahoan legarrik bakoa; ez-fikzioa nobelen aitabitxia...**»

gozatzeko aukera egon badagoelako. Idazle legez, are gehiago pertsona legez, tipo xelebrea izan zen Capote; bai bere lanetan, bai bere izaeran kritikak gehien nabarmendu duen ezaugarri nagusienetako bat izan da, ahoan legarrik ez zuen horietakoa izatea. Arrakastak goi-mailakoakaz harremantzerakoan izan zen eta ezin ziurta zeinek egiten zuen barre zeinen kontura. AEBeko XX. mendeko idazle



Truman Capote (AEB, 1924-1984)

nagusien artean dute adituek, eta ez-fikzio nobelen aitatzat jotzen dute Odol hotzean (1966; itzul. Xabier Olarra 1993, Igela) maisulanaren ondorioz. Eleberri ezagun horrez gainera, Gosaria Tiffanysen (1958; Itzul.: Koro Navarro, 1989, Elkar) eta Kamaleoientzako musika (1980; Itzul.: Xabier Olarra, 2000, Igela) lanak ezin aipatu barik utzi. Besteak beste, lan horietan eta Capoteren bizitzan zineak ere ipini du bere arreta. Aipatutako lanen albotik euskaraturik dauden Capoteren beste lan batzuk hauek dira: *Gabonetako ipuinak* (Igela), *Ehun atsekabeen atea* (Igela), eta *Eskuz landutako hilkutzak* (Igela). ○

liburuak



TAV. Las razones del NO
Iñaki Barcena/Josu Larrinaga
Txalaparta

2006an egiten hasi ziren Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa birplanteatzea eta atzerapena eskatzea dira Txalapartako lan honen helburuak. Horretarako, arrazoiak eta argudioak eskaini eta Euskal Herri berde eta iraunkorraren alde egiten dute.



Londres kartoizkoa da
Unai Elorriaga
Elkar

Diktaduraren ondoko garai lanbrotsuan kokatu du Elorriagak bere azken lana. Pertsonaiek krudelkeriaren oroitzapena jaso eta gorde gura dute, euren zauriak behingoz ixteko. Erroei eutsi badie ere, barrikuntzak aurkituko ditugu bai gaien baita idatzeko moduan ere.

[kirola]

Sasoia berhartzeko ordua

Guztira **18 kirol motaren** gaineko ikastaroak eskainiko ditu Getxo Kirolak erakundeak



Aquagym ikastaroa eskainiko dute aurten Gobelako ugerlekuan

Uda eta oporrak “patxadan” igaro ostean, sasoia berreskuratzen hasteko ordua heldu da irailagaz batera: entrenamenduetara itzultzea, gure kabuz kirola egitera urtetea, ikastaroren batean izena emotea e.a. izaten dira, urte hasierakoa-kaz legez, hil honetan sortzen zaizkigun asmoak. Gurera ere heldu dira horietarako proposamenak eta eskaintzak, hala Getxo Kirolak erakundetik bidali dizkiguten aukeren barri zuri helaraztea otu zaigu; ziurrenik, Uribe Kostako beste kiroldegi edota kirol erakundeek ere izango dituzte antzeko eskaintzak, horrenbestez, emoten du ez dugula aitzakiarik ipintzeko aukerarik: sasoian ipin gaitzen!

Ohiko eskaintzaz gain, Getxo Kirolak erakundeak ikastaro barriak ipiniko ditu martxan aurten, horien artean hurrengoak daude: *aquagym* ikastaroa (Gobela kiroldegian) umedun daudentzako yoga ikastaroa (Fadurako kiroldegia) eta sorbaldako arazoak dituzten pertsonentzako pilates ikastaro bere-

zia (Fadura kiroldegian). Horrez gainera, bai Faduran baita Gobelan ere, 5-6 urte bitarteko umeek tenisean ikas dezaten hastapen ikastaroak eskainiko dituzte. Gainontzeko ikastaroak ohiko lekuetan eskainiko direla jakinarazi dute Getxo Kirolak erakundetik, Fadurako ugerlekuaren eraikuntzako kirolgunean egiten zirenak izan ezik, horiek beste leku

«**Oro har, Getxo Kirolakek eskainiko dituen ikastaroak urrian hasiko dira**»

batean (ez dute zehaztu; baina ez dira Gobelan izango, Fadurako beste leku batean baino) emango dira eraikuntza zaharbarritzen duten bitartean. Oro har, ikastaroak urrian hasiko dira eta adierazi dutenez, “guztira 18 kirol modalitatetan ia 5.000 leku izango dira”. Amaitzeko, zozketa egin ostean, ikastaroetarako izen-emotea irailaren 17an zabalduko dute, “ondoren, zozketatik kanpo lotu diren artean banatuko dira lekuak”. ○

Informazioa: 944308070 / 944308067

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
• IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Lander Otaola Arregi > aktorea

“Nire ametsetako bat egunen batean film bateko gidoia idatzi eta zuzentzea da”

Gaztea izanagatik ez da esperientzia bakoa Lander Otaola aktorea. Dagoeneko lau filmatan parte hartu du, egunotan dira estreinatzeakoak horietako bi Donostiako Zinemaldian; *Zorion perfektua* eta *La maquina de pintar nubes*. Bilbotarra dugu, baina Getxoko Antzerki Eskolan ikasi du Arte Dramatikoa bi urtez. Gainera, laster ikusiko dugu *Vaya Semanita* telebista saioan.

—Lau filmatan parte hartu duzu eta 20 urte baino ez daukazu, nolatan gertatu zaizu hori?

—*Kasting* bat egin nuen orain urtebete *La maquina de pintar nubes* filmerako eta hartu ninduten. Proba gehiago egin nituen eta dagoeneko lau film daramatzat. Hemendik aurrera, barriz, *Vaya Semanita* saioan ere parte hartuko dut.

—Eta euskaraz dira filmetako bi.

—Gustuko dut, beti ikasi dut euskaraz, baina kalean gero ez dut asko erabili lagunakaz. Baina oso gustuko dut euskaraz aritzea. Gainera, beharrezkoa da filmak euskaraz egitea, gure zinema da azken batean, eta gurea bada, euskaraz egitea hobeto. Oso pozik nago, ondo moldatu naiz.

—Baina pare bat urte besterik ez daroazu antzerkigintzan, ez ei da erraza txokoa egitea mundu horretan?

—Selektibitatea amaitu eta antzerkia egiten hasi nintzen. Oso azkarra izan da dena. Zortea izan dut, jende askok gura duelako aktore izan. Beno, aktore baino, ospetsu. Egun bian egin gura du serie edo filma. Baina aktore izatea beste gauza bat da, zailagoa, diziplina handia, talentua... behar dituzu. Zaila da, baina



Film bi estreinatuko ditu Otaolak Donostiako Zinemaldian

gutxinaka, profesionala bazara, jendeak segurtasuna dauka zuga.

—Aspaldi gura zenuen antzerkian aritu?

—Bai, bai, betidanik gura izan dut aktore, txikitatik. Urte asko ibili naiz futboleko talde askotan, eta ez neukan denborarik antzerkian aritzeko. Futbola uzteagaz batera hasi nintzen honetan.

—Getxoko Antzerki Eskolan ikasi

bat ezagutzeko, kolpetik sartu beharrean. Ez dakit, uste dut nire eskola dela lanak egitea, antzerkia, filmak...

—Hortik sortu zen YoNunka antzerki taldea, Getxoko eskolatik?

—Hori da, ikaskideakaz sortu genuen. Algortako gaztetxearen urteurren baterako zer edo zer prestatzeko eskatu ziguten, eta beste zazpi emanaldi eskaini genuen ondoren. Hurrengo urtean beste

“Jende askok gura du ospetsu izan, aktore baino; egun bian egin film edo seriea, baina hori ez da aktore izatea”

duzu Arte Dramatikoa, baina hori izan da lehen harremana antzerkiagaz?

—Bai, hain zuzen ere. Nik uste antzerki eskolan egotea merezi duela oinarria hartzeko, baina ekinez ikasten da gero gehien, taula gainean. Horrela ikasten da asko eta asko. Eskola ondo dator oinarri txikia hartu eta antzerkia apur

lan bat prestatu genuen eta hogeitasei saio eskaini. Nik orain ezin dut jarraitu denboraz faltagatik, baina besteek bai.

—Gidoilari eta zuzendari ere aritu zinen lan horietan.

—Bai, dena dut gustuko. Nire ametsetako bat egunen batean pelikula bateko gidoia idatzi eta zuzentzea da. ○

GETXOKO EUSKALTEGIAK

GETXOKO EUSKALTEGIAK

18-23 urte bitarteko gazte gehiengorako (1986-1991 bitartean jaioak), lan-merkatarik sartu aurretik euskaraz ondo jakin dezaten.

LAZARTEA EUSKALTEGIAK

18-23 urte bitarteko gazte gehiengorako (1986-1991 bitartean jaioak), lan-merkatarik sartu aurretik euskaraz ondo jakin dezaten.

LAZARTEA EUSKALTEGIAK

18-23 urte bitarteko gazte gehiengorako (1986-1991 bitartean jaioak), lan-merkatarik sartu aurretik euskaraz ondo jakin dezaten.

LAZARTEA EUSKALTEGIAK

18-23 urte bitarteko gazte gehiengorako (1986-1991 bitartean jaioak), lan-merkatarik sartu aurretik euskaraz ondo jakin dezaten.

Etorri Euskaltegira!

18-23 urte bitarteko gazte gehiengorako (1986-1991 bitartean jaioak), lan-merkatarik sartu aurretik euskaraz ondo jakin dezaten.

AITZAKIARIK GABE, GEUK ORDAINDUKO DUGU!

NORENTZAT DIRA DIRU-LAGUNTZAK

- 18-23 urte bitarteko gazte gehiengorako (1986-1991 bitartean jaioak), lan-merkatarik sartu aurretik euskaraz ondo jakin dezaten.

BALDINTZAK

- Onartuko euskaraz maila 1an behar duen eskolarek (euskaltegietako 6. maila edo 18. maila).
- Aukara hau behar duen izango da, gehienez, bi ikasleak.
- Ikasleak, gurasoak, egunen 7 ordukoak izango dira. Irizkiak eta baimenak ere diruz lagunduko dira. Egonaldiko gastuetarako ez da laguntzarik emango.
- Ikasleak osoko eskola-ordua guztien %65era joan izana frogatu behar du eskolarek.

ARGIBIDEAK:

Getxoko Udako Euskaraz Zerbitzua

Tel.: 94 466 20 20
euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net

Luis Maddi Artola > Sakuskune

“Gandurik gabeko egunetan, ia Bizkaia osoa besarka daiteke beso zabalik”



“Alabaina, beste larretan hazitakoa izanagatik ere, ez zaizkit egiten oso arrotz lurrok”

Ni ez nauzu hemengoa, Uriberen lurretakoa. Alabaina, beste larretan hazitakoa izanagatik ere, ez zaizkit egiten oso arrotz lurrok. Gurean, mundua ikusi ahal izateko gailurretara igotzen ohitua nago; Bizkai-Gipuzkoa aldean nekez ikusiko duzu bestela eremu zabalik. Basozuloetakoa naiz, lurrari itsatsita hazitakoa, eta itsas ertzera hurbiltzen banaiz ere, sarritan lehorrera jiratzen dut burua, mendialdera, haitzetara.

Bada, etorri berritan, itsasondotik txakurrarekin egindako lehenbiziko bueltan ikuspegi harrigarri batekin egin nuen topo Sakuskune aldean, inongo gailurretara igo

beharrrik gabe. Lehorrera begiak, itsasoa lepoan, eremu benetan zabala ageri da. Aurrez aurre etxe sail latza, erriberako galsoroen antzera. Arrotzari irudi lekiok herri bera, baina hor dira Berango, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Sestao, Barakaldo, Leioa, Erandio eta atzean urrun, Enekuri barranean, Bilboko auzune batzuen arrastoak.

Begirada pittin bat aideratuz gero, lurrak eta zeruak elkar ukitzen duten horretara, gandurik gabeko egunetan ia Bizkaia osoa besarka daiteke beso zabalik. Ekialdeko itsasotik urteten dira Ermua, Jata, Sollube, Oiz, Udalaiz, Anboto, Mugarra, Gorbea, Pagasarri, Ganekogorta,

Argalario, Eretza, Ganeran, Serante eta, mendealdera itsasoratzen, nire begiei ezezagun zaizkien Bizkaia eta Kantabria mugako goilurrak. Ea topatzen duzun itsasertzean hain garaiera txikian halako ikuspegi zabal eta zoragarria eskaintzen duen lekurik.

Hementxe, hormigoizko zutoin zuria beso artean, isiltasun betean begirada galduta hartzen dut noizbehinka gozamen eta atsedean.

Oharra: kontuz gero, hor barreneko etxe sail horrek honaino iritsi eta guztia ezkutatze mehatxua egina baitu. ○

Iparralde self-service

Hartu egizu gura duzuna



Lurta Nikolas, Arantza Peña, Ainhize Zalduegi eta Gabi Rueda

Ez dago aukeratu beharrrik; amaitu dira kartari begira emandako minutu amaiezinak. Iparralde jatetxeak dena jartzen du zure eskura, eta zuk gura duzuna har dezakezu. Maiatzean zabaldu zuten Barrikako self-service barria, Surf Campeko eta Itxasgane Jatetxeko lagunak elkarlanari esker: “Inguru hone-tan etxeko janaria eskaintzen duen lokal baten beharra zegoela ikusi eta animatu ginen. Eguneko menua ez eskaintzeak, langile gutxiago kontratatatu behar izatea suposatzen du. Horretan aurrezten dugun dirua lehengaien kalitatean inbertitzen dugu”. Badago, platera mahaira eroaten ez diotela ikustean, aurpegi txarra jar-tzen duenik: “Oraindino ez gaude ohitu-ta; denbora kontua da”.

Jatetxea izateaz gain, surfaren gotor-

leku txikia ere bada Iparralde. Txapel-ketak iragartzen dituzten kartelak, taula zaharrak, neopreno jantziak... etxean gordeta zituzten, zein lagunak utzi diz-kieten “surf bitxiak” bildu dituzte. Mareei begira egon behar duten ureta-ko kirolarientzat, leku aproposa da: “Edozein ordutan hurrera daitezke baz-kaltzera, eguneko menua eskaintzen duten jatetxeetan ez bezala”. Entsaladez gain, lehen eta bigarren plater beroak, momentuan prestatzen dituzten haragi eta arrain freskoak eta postreak dituzte. Gainera, neguan, bokatak, hanburgesak eta etxera eroateko janaria egiten hasiko dira: “Jatetxe oso gutxiak eroaten dute janaria Barrikako etxeetara; horretan ere gabezia ikusi genuen”. ○

Bide Nagusi 10, BARRIKA
Tf. 94 677 21 59

JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

ARTAZA ETXEA

jatetxeaa

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

Uribefm
107.8

gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Tellebte 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
Tf. 94 460 02 88
ALGORTA

*Usategi
kafetegia*



*Usategi parkea z.g.
Algorta*

**Tf. erreserbak: 94 460 64 13*

[horoskopoa]

◆ URA (Abenduak 21 urtarrilak 19) Kaleik maskara jantzita zablitzta, A gripea dela eta histeriko. Lasai egon zaitez, zuk ez dakizu Euskal Herrian beti izan dela A gripea ala? Euskaraz gripea betidanik.	◆ OTSOA (Urtarrilak 20 otsailak 18) Parrandakaz ase barik? Oraindino geratzen da baten bat hortik. UK-ko agenda begitu baino ez daukazu, Txopoeta bertan daukazu zain. Aprobetxatu, sasoiko azkenetakoak dira eta.	◆ ADARRA (Otsailak 19 martxoak 20) Hori da pasioa hori! Bikotekidea topatu ez, baina laguntxo asko egin duzu zuk trukean. Hori da sasoia hori! Baina kontuz ibili, baten bat enamoratuko zaizu konturatu orduko.
◆ AITZURRA (Martxoak 21 apirilak 19) Asteburu osoa eman duzu ortuko belar txarrak kentzen, eta bizkarra leher eginda daukazu? Noski, ez zara eta garai bateko gazte hura. Patxadaz hartu beharko zenuke hurrengo lanaldia...	◆ HOSTOA (Apirilak 20 maiatzak 19) Oporrak agortu zaizkizu? Bazen garaia! Iraila osoa lanean eman dugu gchienok dagoeneko. Bainujantzia gordetzeko garaia iritsi da, hurrengo urtean gehiago!	◆ EGUZKIA (Maiatzak 20 ekainak 18) Maitasun kontuetan trebea zara, uda ederra igaro duzu. Baina orain hasitakoa zaindu behar, negua hotza eta luzea izaten da eta. Lasai, gustura zablitzatela ematen du eta.
◆ GARIA (Ekainak 19 uztailak 18) Aspaldi ikusi bako lagun bategaz egingo duzu topo aurki, baina ez duzu jarraian ezagutuko, burua soilduta baitauka dagoeneko. Diplomazia erabili, trauma handia eragingo diozu bestela.	◆ LASTOA (Uztailak 19 abuztuak 17) Zabalik duzu herriko kiroldegian yoga ikastaroan izena emateko epea. Segi azkar, klasea bete baino lehen, sumatzen ez baduzu ere, laster beharrezkoa izango duzu eta.	◆ IRATZEA (Abuztuak 18 irailak 16) Lanera bueltatzeko gogoz zebilen bakarra zara zure bulegoan, eta guztiak alaitzeko erabakia hartuta daukazu. Baina kontuz ibil zaitez, lankide bat ospinduta dago, eta berba txarren bat eskaintzeko irrikan daukazu.
◆ META (Irailak 17 urriak 16) Ai Karibe aldean, zeinen ondo igaro duzun abuztua. Mojitxoak egiten ere ikasi duzu. Lagunen arteko afarietan izarra izango zara negu honetan. Pamela ere jantzi beharko zenuke.	◆ HAZIA (Urriak 17 azaroak 15) Etxeok aztoratuta zauzkate ikasturte barrian armairuak hustu eta altzairu batzuk aldatu guran dabiltzalako. Kasu egin besterik ez daukazu, zenbat eta lasterren amaitu, orduan eta hobeto.	◆ NEGUA (Azaroak 16 abenduak 20) Entziplopediak saltzera hurreratuko zaizkizu etxera. Tentuz ibili, gura ez duzun libururik erosteko aukera handia daukazu eta. Hori bai, norbaiti opari egiteko balaia zenitzake.



www.koskairratia.com



HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuma

1. Gaztea denaren nolakotasun. 2. Maltzurkeria, azpikeria. Euskal sindikatua. 3. Gertaera on eta txarren iturburutzat hartzen den kausa zehaztubakoa. Asia ipar-ekialdeko ibaia. 4. Asiako estatua. Guztiz beteak. 5. Dulantziko kontzejua. Lehenengo bokala. 6. Oxigenoaren ikur kimikoa. Danbor mota. 7. Eskoriatzako elizatea. Itxura, tankera. 8. Etxe aldaketa. Gipuzkoako hiria. 9. Garen hauek. Itxura on eta ederreko. 10. Zango edo hanken mugimendua.

Goitik behera

1. Ez geza. Ipar Irlandako hiria. 2. ... eman, etsi. Bihia, garaua. 3. Zaragarra duena, zaragartsu. 4. Pandro jole batek lagunduta jo-tzen den soinu txikia, euskal erro-merietan ohikoa dena. Potasioa-ren ikur kimikoa. 5. Modua. Be-har, egiteko. 6. Istu, txistu, listu, txu. Amerikako Estatu Batuak. Euzko Alderdi Jeltzalea. 7. Lehe-nengo bokala. Asto ar gazte, gizo-nezkoekiko irain hitz gisa erabilia. 8. Gurasoen ondorengoak. 9. Oihu zoli eta luzea, uhuria. Nafa-rrako herria, Urumealdean. 10. Aulestiko auzoa. Arreta, ardura.

Soluzioa

V	O	K	O	J	V	K	N	V	H
L	N	V	L	V	G		N	E	G
H	V	B	I	E		V	D	L	V
V	H	V	K		N	I	H	V	M
	V	L	V	B	V	L	V		O
V		V	L	E	L	I	G	E	
K	V	E	S	V		K	V	H	I
H	N	M	V		V	I	H	O	Z
V	L	E		N	H	R	V	M	V
N	N	S	V	L	E	T	E	Z	G

gaztetxoak < bilatu eta irabazi > ez horren gaztetxoak

Zein perkusio-instrumenturen jaia ospatuko dute Algortako kaleetan urriaren 3an ?

> Aurrekoaren erantzuna: Michael Jackson
> Irabazlea: **Mitxel Sarasketa**

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zer animalia ikus daiteke UK-ko ale honetako azalean?

- **Txakurra**
- **Matxinsaltoa**
- **Zebra**

> Aurrekoaren erantzuna: Michael Jackson
> Irabazlea: **Mitxel Sarasketa**

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

argia

astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan

www.argia.com

SARIA

argia

jolasak eta jokuak

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



XABIER LAUZIRIKA, "ESTROBO"K ATERATAKO ARGAZKIA, ETA TABERNA BERRIK UTZITAKOA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO TRAINERILLA BERMEON, 1976

Bermeon, Santa Eufemia jaietan, Irailaren 16an izan zen Kantauriko Trainerillen Txapelketaren estropadan, parte hartu zuen Algortako trainerillak; 33 urte bete dira, beraz, oraintsu. Estropada ona egin zuen, nahiz eta txanda ia osoa bakarrik egin behar izan, bere txandako aurkaria, Peñacastillo, atzean geratu zelako estropada hasi eta gutxira. Hirugarren postuan sailkatu zen eta Mundakak, irabazleak, bederatzi segundo baino ez zizkion atera. Valenek utzitako orduko egunkari (El Correo) zatitxo bati esker, jakin dugu egun horretan eta Bermeon bertan, txapelketaren antolatzaileek Markitosi plaka bat oparitu ziotela, arraun munduan egindako lanarengatik, eta oso txalotua izan zela gure Portu Zaharrekoa. o

Atzetik hasita:
Valen Pomposo (brankaria),
Jesus, Juan Agustin Zarraga,
Luis Frontela "Catalan",
Javi Atxalandabaso "Atxa",
Josean Zubizarreta (popakoa),
Marcos Bretos "Markitos" (patroia).

ANJEL ALKAIN > aktorea

“Txikitan izeba bat imitatzen nuen, etxekoek barre egiten zuten”

Testua: Zuberoa Iturburu



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Umoretsu bizi nahi duen pertsona.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
El Guateque, Peter Sellersek antzeztutakoa. Nire idoloetako bat da. Ikaragarri gustatu zitzaidan filma hura.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?
Torero, diru asko irabazten dutelako, edo hori esaten dute behintzat.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?
Lanarekin zerikusia izan dezakeen zerbait, nire izeba bat imitatzen nuen nahiko ondo. Etxekoek barre egiten zuten.

Horregatik Atsuak atala Wazemank saioan?
Ez, atsuek beti funtzionatzen dute, enkantua daukaten pertsonak dira.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Askok. Ez naiz batere disziplinatua, nahiko dispertsoa naiz, bai.

Aitor dezakezun bizio bat.
Bueno, pixka bat *light* esango dut, txokolate beltza.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?
Bai, asko, Jesus Maria! Iaz adibidez, Sizilian egon nintzen eta berriz joango nintzateke, oraintxe bertan. Oso oso gustura ibili nintzen. Ez dakit zergatik, baina irlak gustuko ditut.

Zein da zure ametsetako bat?
Ahal den eta umoretsuen bizitzea, beti.

Eguna ala gaua?
Egitekoaren arabera. Ez dakit, arratsaldea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
Igandean egon nintzen Ernion, urtero joaten naiz irailean, lau igandetan. Eta aparte, etxeko komuna, noski! Nire txokorik maiteena da, intimoena. ○

LABURREAN— Makina bat barre algara lapurtu digu Anjel Alkainek (Andoain, 1966). *Sorginen Laratza* telebista saioan ezagutu genuen gehienok, ezaguna ere oso *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzerki lanean eta filman antzeztutako papera. Aurki estreinatuko du *Xabinator* antzezlan Gorringo taldeagaz, jendea euskaraz barre egiten jartzen jarraitzeko. *Wazemank*, *Noaoa* eta *Brinkola* telebistako umore saioetan ikusi dugu azken urteotan, eta *Wazemank* programaren atal barriak emititzen hastekotan dabilta, hain zuzen ere. Atsuak, Auto Patxi... Zer pertsonaia itzuliko ote dira? Zer barri ekarriko ote dute? Krisiari aurre egiteko umorea bezain onik ez ei dago!

Zirri-marra

Arte Tailerra

2009 - 2010 Ikasturtea

Margolaritza
Marrazketa
Zeramika
Eskulanak
Argazkigintza Digitala
Ikastaro Bereziak

DANTZALDI
IBILTARIA

Dantzaldi
Ibiltaria

aikotaldea.com

DANTZA IKASTAROAK

ERANDIO-GERNIKA-SOPELA

URRITIK EKAINERA

ZATOAZ DANTZARA!

DANTZAN IKASTEKO BESTE MODU BAT

- Plazako dantzak: pasodoblea, baltsa, jota, parrusaldia, jauriak, poika, e.a.
- Aiko irakasbidea:
 - tradiziozko dantzakaren oinarritua
 - malekatua eta progresiboa
 - ergonomikoa eta naturala
 - musika eta mugimendua uztartuz

AIKO

bbk

90€ IKASTURTE OSOA.
PLAZA MUGATUAK.
Informazioa + izen-ematea:
www.aikotaldea.com
edo 646 336 147

54 UK

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

ZATUZ GUREKIN!!!

LOPE DE VEGA, 12 - 48930 (Romo)
tfnoak: 94 464 62 99 / 94 464 65 02
e-mail: euskaltegi@getxo.net

MATRIKULA ZABALIK
irailaren 23ra arte
MATRÍCULA ABIERTA
hasta el 23 de septiembre

Curso 2009-10
Ikasturtea

5 ORDU - 4 ORDU
2,5 ORDU - 2 ORDU
1,5 ORDU

5 ORDU - 4 ORDU
2,5 ORDU - 2 ORDU
1,5 ORDU

AUTOAPRENDIZAJE
(BOGA)
AUTOAPRENDIZAJE
(BOGA)

MINTZA
PRAKTIKA

MAILA GUZTIAK
TODOS LOS NIVELES

MAILA GUZTIAK

MINTZA
PRAKTIKA

HABEKO
1., 2. eta
3. maila
prestatzeko
ikastaroak

HABE



Getxo
KULTUR ETXEA
EUSKALTEGIA